



ARGIA

GASTEIZKO EUNEIZ KIROL UNIBERTSITATEA

HEZKUNTZA PRIBATUAREN ORDAIN PUBLIKOA

23-27. orriak

2.748 | 2021 / 10 / 03 | 3,90 €



*"Gure esku dagoena
egingo dugu EA bizirik
mantentzeko"*

28 | EVA BLANCO



*Talidomidaren
kalteak, bideoklip
bidez argitara*

32 | GIZARTEA



*"Euskaldunok mitoa
elikatu dugu gure
hizkuntzaz"*

36 | BEATRIZ FERNANDEZ

JAKOBA ERREKONDO ETA ANTTON OLARIAGA



 **ARGIA**
BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus

Norberaren eguneroko bizitza ilargiaren eta lurraren aroekiko irekita bizi nahi duen ororentzat, gozagarri eta jakin-min asegarri dugu agenda hau. Gure bizitzako hitzorduak eta gogoan hartu beharrekoak idazteaz gain, landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteko baliatuko dugu. Agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu baratzean, fruitu arboletan, lorategian eta basoan: zer eroin, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

AURRE-SALMENTA: **AZOKA.ARGIA.EUS** • 943 37 15 45

14€ +4€ bidalketa gastuak



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIA

AZALEKO ARGAZKIA: **DOSPORDOS**
MONTAJEA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | ANA MENDIA
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | KIMETZ ARANA BUTROE
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | ANE LABAKA MAYOZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LEIRE PINEDO
- 54 | BERANDUEGI



DOSPORDOS

28 | **EVA BLANCO**

Eusko Alkartasunako idazkari nagusi eta EH Bilduko legebiltzarkidea elkarrizketatu du Xabier Letonak, alderdiaren barruko joeren eta gatazken inguruan duen ikuspegiak mintzo da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Arriskuak arrisku bitcoina moneta ofizial bihurtu du El Salvadorrek

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | MIKEL SANTOS, 'BELATZ'

"Neska askorentzat erakargarriagoa da manga, emakumezko protagonista gehiago dagoelako"

Reyes Ilintxeta

23 | HEZKUNTZA

Euneiz unibertsitatea: denona baina ez denontzat

Ruben Sanchez Bakaikoa

32 | GIZARTEA

Punk&Roll-a talidomidak kaltetuen isilunea urratzeko

Amaia Lekunberri Ansola

36 | EUSKARA | BEATRIZ FERNÁNDEZ

"Gizakiok agian ausartegiak gara diogunean ez dagoela hizkuntzarik beste inon"

Onintza Irureta Azkune

44 | KULTURA | ZINEMALDIA 2021

69. Zinemaldiaren errepassoa

Peru Iparragirre

Ainhoa Gutiérrez del Pozo

Mikel Antza

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enpreekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



DISTIRA PUBLIKOA

Norbaiti sari publiko bat ematea ospea, aitortza eta ikusgarritasuna ematea da. Zer esanik ez erabat mediatizatuta dagoen gizartean, eta, are gehiago, multinazionalen zinemaren izarrak protagonista nagusi edukita. Horregatik, indarkeria matxistagatik urruntze agindua duenak baliatu du Donostiako Zinemaldiaren mikrofonoa bera biktimatzat aurkeztu eta "mugimenduak (feministak) kontrolik gabe" daudela lau haizetara zabaltzeko. Diru publikoz hesteetaraino josita dagoen jaialdiaren argien dirdirapean.



Euskara, katalana eta galiziera baztertuta, Espainiako Gobernuaren ikus-entzunezkoen lege-proiektuan

ERREDAKZIOA

Espainiako Gobernuak ez ditu aintzat hartu Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak (CAC), Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek egindako ekarpenak. Aurreproiektuaren testuan irakurri daitezkeen, Netflix, HBO edota Amazon Prime moduko bideo-plataformetan, Europako lanen kasuan, aurreikusitako kuotaren %50 gutxienez izan beharko da "Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialean, edo erkidegoetako hizkuntza ofiziale-tako batean". Hainbat eragilek salatu duenez, testuak ez du zehazten zein izan behar den gutxienekoa katalana, euskara edota galizierari dagokienez.

“Erantzukizun partekatuak ditugu, eta zeinek bere funtzioak bete beharko ditu legeak bere horretan aurrera egin ez dezan”

CAC ikus-entzunezkoen kontseiluak eskatu du estatuko hizkuntzetan eskainitako obren %50 katalanez, euskaraz edo galizieraz izatea, ikus-entzunezkoen sektorean hizkuntza horiek bizi duten prekarietatea dela-eta. Erakunde horrek egindako bigarren eskaera bat ere ez dute aintzat hartu. Proiektuak jasotzen duenez, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen mailegatzailerek, haien irabazien %5 bideratu beharko dute europar obrak finantzatzera, eta kopuru horretatik, %70 jaso beharko dute ekoizle independenteen lanek, izan Estatuko hizkuntza ofizialean, edota erkidegoetako hizkuntza ofiziale-tako batean. CAC-ek eskatu du %5eko hori bikoiztea -%10era igotzea bikoizketa-, euskaraz, katalanez eta galizieraz egindako lanak finantzatzeko aukera



handiagoa izateko, baina eskaera hori ere ez du jaso testuak.

“EUSKARA DESAGERRARAZTEKO ARRISKUA”

Euskalgintzaren Kontseiluak ere kezka agertu eta erabakia salatu du, komunikatu bidez. Elkar-teak, Hekimen, Tokikom, Topagunea eta Pantailak Euskaraz eragileekin batera, uztailean luzatu zion gobernuari aurreproiektuaren inguruko bere ekarpena. Derrigorrezko hizkuntza-kuotak ezartzea eskatu zuten orduan, baina gobernuak ez du proposamena onartu.

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak esan du erabaki horrek euskara bezalako hizkuntzak desagertzea ekar dezakeela ikus-entzunezkoen eremuan. “Gobernuak aukera izan zuen bigarren zirraborro horretan berezko hizkuntzen erabilera bermatzeko neurriak txertatzeko, baina ez zuen halakorik egin, eta

gurea bezalako hizkuntzei inolako tarterik ez esleitzeko aukera zabalik utzi zuen beste behin”.

ESKAERAREKIN JARRAITUKO DUTE

Kontseiluak adierazi du kuoten proposamenarekin jarraituko dutela. “Azken boladan behin eta berriz esaten ari gara Batuz Aldatzeko aukerak izango ditugula, eta honetan ere halaxe izango dela uste dugu. Erantzukizun partekatuak ditugu, eta zeinek bere funtzioak bete beharko ditu legeak bere horretan aurrera egin ez dezan”, gaineratu dute. Horregatik, eragile sozial eta alderdi politikoekin erantzun bateratua emateko estrategia adosten hasi dira. Lehenik, ekarpenak egiten lagundu zieten elkar-teekin eta estatuko gainerako eragileekin bildu nahi dute. Ondoren, Madrilen ordezkari-tza duten alderdiekin bilerak antolatu nahi dituzte. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Lorik ez



ARITZ GALARRAGA

Daitort, inoiz desio izan dut insomnia. Ea, ondo lo egin dut orain arte, asko-asko ere ez, zortzi ordurekin aski, zazpirekin astea aurrera joan ahala hasten naiz nabaritzen nekea. Baina ez dut problemarik edozein ordutan esnatzeko, zerbait berezia egin behar bada, norabait joan –ikasturte batez goizeko 5:30ean esnatzen nintzen, eta ez nuen ezer berezirik sentitu, kaleko baretasun zerutiarraz aparte-. Egunak ematen ez didan sentazioa gainetik ezin kendu nabil, ordea, ordu gehiagoz aktibo, ordu gehiagoz produktibo izateko nahia. Ezen, pentsa, lau ordu aurreztuz gauero, seigarren egunerako 24 ordu pilatuko nituzke, egun oso bat. Izan ere, izaki gorena da lorik egiten ez duena. Soilik lo egiten dute tentelek. Begira Cioranen sententzia hau –agian lorik egin gabe egun asko zeramatzan egun batean idatzia–: “Tragedia hau beren laruan bizi izan ez dutenek ezin dute ezer ulertu. Insomnia, bizitzan izan dezakegun esperientziarik handiena da”.

“Behinola, lo egiten nuen”. Hala hasten da Marie Darrieussecqen liburu berria, *Pas dormir*, insomniaoren autobiografia moduko bat. Lorik egin gabeko hogeit erterren emaitza. “Zer moduz zaude?” galdetu ordez, “zer moduz egiten duzu lo?” galdetzen duen pertsona batena. Mundua banatzen baita lo egin dezaketenen eta lo egin ezin dezaketenen artean. Lo da gure itzala, gure erdia, babesten gaituen erdia, sostengatzen gaituena. Lo gu da, gure absentsian. Gal dezakegu, aitzitik. Insomniaok, aldiz, ez gaitu uzten, egunean zehar ere hor da, egunez ere jarraitzen du bere lan suntsitzailea. Kezka guztiak kezka bakar bilakatzeraino: nola egin lo egiteko. Hori besterik ez. Lo egin. Daitort, inoiz desio izan dut insomnia. Ondo lo egin baitut orain arte. Orain hasi naiz okerxeago egiten, ohera sartu, nahiko azkar lokartu, eta handik ordu erdira, burua bueltaka, ezin berriz begiak bildu. Tira. Zutabea bukatzeko ordua. Erlojuan 4:44. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Bortxaketa

Emakume batek salatu du hainbat gizonek drogatuta eta bortxatu dutela Bilboko Zazpikaleetatik hurbil dagoen etxebizitza batean. Irailaren 24tik 25erako gauean izan zen. Emakumeak salaketa jarri du eta Ertzaintzak ikerketa hasi du.

Puigdemont

Sardiniako aireportuan atzeman zuten polizia Carles Puigdemont, joan den astean, ustez sedizio delituagatik. EBk immunitatea kendu zion atxilotzeko arriskurik ez zegoela ebatzita. Ordu batzuetara auzitegiak aske utzi zuen, irla ez uzteko baldintzarekin.

Mozal Legea

Mozal legeaz zigortu dituzte *Ahotsa* eta *Ekinklik*-eko kazetari bana, Aroztegiko protestez informatzeagatik. Seirehuna euroko isunarekin zigortu dituzte. Guardia Zibilak leporatzen die agenteak identifikatzea errazten duten irudiak publikatu izana.

EKONOMIA

Prekarietate formala



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Oinarrizko soldata igotzea erabaki du Espainiako Gobernuak. Igoera eskasa, eta patronala argazkitik kanpo geratu delako urrats ausarta denik ezin esan. Euskal sindikatuak igoera kritikatu dute, ez da nahikoa bertako errealitate ekonomikoan, eta bizitza hori baino gehiago garestitu digute gainera. Salatu dute Madrilen eta hango eragileen artean adostu dela. Hego Euskal Herrian, 1.200 euroko oinarrizko soldataren alde atera gara kalera, hor kokatu dugu minimoa, eta eskakizuna ez dago elkarriketa mahai horretan, ezta azken helburu bezala ere -1.059 euro da, euren iritziz, oinarrizkoa-.

Kontuan hartzekoa da Nafarroako eta EAEko patronalek -baita ondoan dituzten sailburu eta kontseilariak ere- egin duten zalaparta urria. Ez dira eskuzabalagoak, ez da begirune kontua, ezta prekarietatearekin eta pobrezia-aren hedapenarekin kezkatzen hasiak direla ere. Igoera horrek ez du apenas ondorioz izango hemen. Hitzarmen gehienetan soldatak gainetik daude. Eta erraza, oso erraza zaie oinarrizko soldatetik behera ordaintzea, lanaldi partzialetan ordu-estrak baimendu diren-etik adibidez. Prekarietateak balioa kendu dio oinarrizko soldatari, eta ez soilik kopuruz txikia delako. Lan merkatu formalean, formalidade hutsa bilakatzeko adina prekarietate dago, eta hortxe egin behar dira urratsak patronalaren baimenik gabe, emankorrek izango badira.

Sakoneko auzia lan merkatu ez-formalean dago dena den, oinarrizko lan eskubideak aitortu eta urtez urte hobetzea benetan eraginkorra izango litzatekeen eremuan. Etxeko Langileen Elkarteak salatu duenez, etxe barruan lan egiten duten 10etik 9k ez du oinarrizko soldata jasotzen, eta kanpoan lan egiten dutenen artean, soilik 4k jasotzen dute halakorik. Jakina denez, emakumeak gehien gehienak. Auzia ez da nolana hikoia, formalki lortzen diren hobekuntzek espazio ez-formalean ari direnak baztertzeko dituzten bakoitzean, haustura handiagoa egiten da gure artean. ●

ANALISIA



Telemedikuntza

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Salbuespen gisa saldu zigutena betiketze bidean da. Jaurlaritzak esan du telefono bidezko kontsultek segituko dutela, tresna eraginkorra direla aurrez aurreko kontsultaren aurre-pauso moduan. Sarri, baina, aurrez aurreko horretara ez gara iristen herritarrek, edo beranduegi iristen gara. Lehen mailako arretak bizi duen egoera larria begi-bistakoa da.

Medikuari -batzuetan erizainari, batzuetan harrerako langileari- telefonoz kontaktutakoaren arabera -edo whatsapppe bidalitako argazki pertsonalen arabera- duzuna aurrez aurrekora pasatzeko modukoa den erabakitzea, gaitzak baztertzeko edo are gehiago, urruneko diagnostikoa egitea normalizatzen ari gara. Hala dirudi, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gotzone Sagarduik esanikoak entzunda edo osasun zentro ugari hartu duten joerari erreparatuta. Herritar arduratuz gain, osasungintzako profesionalak eurak dira prozedura hau salatzen dutenak, kalitatezko zerbitzurik ematen ez dela eta azken buruan zeharkako murrizketa dela sinetsita. Izan ere, itxaron-zerrenda gero eta puztuagoei aurre egiteko giza-baliabideetan behar adina inbertitu ordez, bidezidor eroso aurkitu du administrazioak: arreta -eta tratamendu- telematikoa.

Bidezidorra, baina, malda tranpatia da. Telefono bidezko arreta inola ere ez da kalitatezko arreta eta ezin du aurrez aurrekoa ordezkatu; asko gara telefono bidezko kontsulta medikuatan esperientzia surrealisten bat bizi izan dugunak. Hainbatetan, aurrez aurrekora iristeko prozesua luzatzea baino ez dakar hitzordu telefonikoaren protokoloak, eta jakin badakigu gaitza garaiz ez harrapatzeak zein ondorio izan ditzakeen. Aurrez aurreko baheketa ez egitearen ondorioak ere ezagunak zaizkigu -2020an, Osakidetza ez zituen koloneko 1.695 tumore eta bularreko 202 atzeman, pandemiagatik baheketa programak bertan behera geratu zirelako-, baina oraindik ere itxaron-zerrendak daude baheketetarako. Aurrez aurrekoaren premian, bada pribatura edo zuzenean larrialdietara jotzen duenik, larrialdiek gainezka are gehiago egitea eraginez.

Pandemiaren aurretik jada kexu ziren lehen arretako profesionalak: burokrazia eta paper artean itota zeuden, denborarik gabe pazienteak artatzeko, behar bezalako tratamendua jartzeko eta segimendua egiteko. Koxka bat gora egin du kolapsoak, eta larria da, osasunaz ari gara. Profesional gehiago eskatzen zituzten lehen eta profesional gehiago eskatzen dituzte orain osasungintzako langileek, ez hitzordu telefoniko gehiago. Gurpil eroak leku berera garamatza beti: lehentasunak non dauden eta diru publikoa zertan inbertitzen den. ●

15

mikrogramora jaitsi du Osasun Mundu Erakundeak gizakiarentzat segurutzat jotzen duen kutsadura maila -25 mikrogramotan zegoen-. Kutsadurak munduan urtero eragiten dituen 7 milioi heriotzak geldiaraztea da asmoa.

%55

emakumeak dira ikus-entzunezko ikasketak egiten dituztenen artean, baina euskal ekoizpenetako lantaldeetan %35 baino ez dira emakumeak.

Emakumeek zineman izan behar duten lekua aldarrikatu dute Zinemaldian.



3.507

lagun hil ziren Nafarroan errepresio frankistagatik 1936 eta 1948 artean. 2.934 hilketak izan ziren, 448 lagun preso zeudela hil ziren, eta 125 beste testuinguru errepresibo batzuetan, NOHBDFren arabera.

“Premiazko neurriak hartu behar dira Myanmar egoera gatazka bihur ez dadin”

MICHELLE BACHELET

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideetarako goi mandatariaik ohartarazi du gerra zibila hastear dela Myanmarren. Otsailean militarrek agintera heldu zirenetik, 1.100 lagun hil eta 4.500 atxilotu dituzte.

2021-09-24



“EZ DUGU IRUDIKATZEN AMAZONEN PRAKTIKAK NORAINO IRISTEN DIREN”

Amazon ereduaz gogoetatzeko solasaldia antolatu zuen joan den astean Eskubide Sozialen Kartak. “Soluzioak egon badaude, baina denon artean eraiki behar ditugu”.

“Berriz ere ederki estutu gaituzte, askotan kostu-prezioaren azpitik saltzera behartuz. Bizirautea baino zerbait gehiago eskaini beharko litzaiguke”



**NAFARROAKO ABELTZAINAK
EHNE SINDIKATUTIK**

TEKNOLOGIA

Espainiako Poesia Saria, Miren Agur Meaberentzat

ERREDAKZIOA

Nola gorde errautsa kolkoan poesia lanarengatik saritu dute idazle lekeitiarra. Sari hori jaso duen euskarazko lehen lana da.

Irailaren 21ean jakinarazi zuen Espainiako Poesia Sariaren epaimahaiak Miren Agur Meaberen (1962, Lekeitio) *Nola gorde errautsa kolkoan* (Susa, 2020) lana sarituko zuela 2021eko sariketarako. Epaimahaiak, erabakia arrazoitza orduan, adierazi du lan hori hautatu duela "euskal poeta garai-kide handietako baten helduaroko poema bilduma delako". "Hamar urteko tartean landuta, maisukiro uztartzen ditu urteen iragatearen samintasuna eta bizitasuna, eta freskotasun apurtezina", laudatu du lana. *Nola gorde errautsa kolkoan* triptiko baten azken pieza dela azaldu zuen Meabek liburuaren aurkezpenean. Alegia, *Kristalezko begi bat* eleberriaren (Susa, 2013) eta *Hezurren erretura* narrazio bildumaren (Susa, 2019) jarraipena.

ZORTZIGARRREN EMAKUMEA

Saria Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak ematen du, eta 20.000 eurokoa da. Miren Agur Meaberena da sari hori jaso duen lehen euskarazko lana. Oro har, gaztelera eta gizonak idatzitako lanak nagusitu dira 1924tik ematen den sariaren edizioetan. Zortzi emakumeren lanak baizik ez dira saritu, eta honekin bost dira gaztelera ez den hizkuntzan idatzitako lan golaratuak; katalanez idatzitako bi lanek eta galegoz idatzitako beste bik jaso dute saria, eta lehen aldia da euskarazko lan batek saria jasotzen duena.

Sariketako epaimahaiak María José Gálvez Salvador izan du buru, Liburua eta Irurketa Sustatzeko zuzendaria. Berarekin batera aritu dira Juan Gil Fernández, Katixa Aguirre Miguélez, María del Vinyet Panyella Balcells, Francisco Javier Díez de Revenga, Eduardo Moga Bayona, Julia Barella Vigil, Luis Fermín Moreno Álvarez, Esther Sánchez-Pardo González, Elena Medel Navarro eta María Olga Novo Presa. ●

NAZIOARTEA

Expropiese!

AXIER LOPEZ

Eta eraikin hori?". "Hori, harribixien salerosketa pribatuak egiten dituen enpresa batena da. Agintariak eskua jaso, seinalatu eta: "Desjabetu dezagun".

2010ean Hugo Chávezek agindu zuenean zenbait enpresa pribaturen esku zeuden Caracas erdiguneko eraikin historikoak espropiatzeko, mundu osora zabaldu ziren irudiak.

Jabego eta negozio pribatuen gaitetik interes publikoa lehenesten duten erabakiak ez dira sarri ikusten. Are gutxiago kapitalaren menpeko Europar Batasunaren barruan. Baina hara non, igande honetan, Berlinen ehunka herritar kalera atera direla pozez. Ez ziren, ez, Angela Merkel en agintaldia-aren amaiera ospatzen ari. Beste lelo bat zuten ahotan: "Vonovia eta Wohnen Berлиндik at!". Izan ere, Alemaniako hauteskundeekin batera, "Expropriate Deutsche Wohnen & Co" taldeak sustatuta -359.063 sinadura bildu ostean-, erreferenduma burutu dute Alemaniako hiriburuan. Eta hara non, herritarren gehiengoak (%56,4) "expropiese!" esan duen.

Han ere negozio borobila da etxebizitza eskubidearekin espekulatzea,

Euskal Herrian ondo baino hobeto eza gutzen ditugu haren ondorioak. Adibidez, hemen bezalaxe, Berlinen ere alokairuen eta lurren prezioak etengabe gora egin du azken urteotan. Erdi-gunetik aldirietara edo hiritik inguruko herrietara joan behar izatea baino, bide zuzenago bat hartzea aukeratu dute non Europako kapitalismoaren bihotzetik. Hala, hirian 3.000 etxebizitza baino gehiago dituzten higiezin enpresa pribatu guztiak desjabetzea proposatu dute berlindarrek, besteak beste, Vonovia, Wohnen, Akelius edo TAG Immobilien enpresak. Eraikin kopurua ikusgarria da: 240.000 etxebizitza (hiriko guztien %15 inguru) izaera publikoko erakunde batera transferituko dira eta "gizartearen eta maizterren parte-hartze demokratikoaren bidez" kudeatuko dira. Baina, beti dago baina-aren bat: galdeketa-aren emaitza ez da lotestea. Agintariaren esku dago erabakia. Merkelen gobernuakide izandako Olaf Scholz buru duen SPD alderdiak eta Berdeek herrialde osoan eta Berlinen gobernu osatzeko adina indar lortu dute. Beraz, pilota sozialdemokraziaren esku dago: zein da lehenik, herritarren interesa ala enpresena? ●

GORABEHERRAK



Etxe kaleratze bat gelditzea lortu dute.

70 urteko alargun donostiarrek 689 euroko pentsioa du eta alokairuko bost kuota zor dituelako etxetik kaleratzeko demanda jarria dio Coral Homes funts putreak. Gizarte mobilizazioak fruituak eman dituela azaldu dute aktibistek: "Ramonaren etxegabetzea 60 egunez bertan behera utziko du funts putreak".

Etixerik ez zuelako ebakuntza ukatu zioten gasteiztarra hil egin da.

Koldo Arribillaga gasteiztarra etxetik kaleratu zuten 2019an. Bizileku duinik ez zuela eta ebakuntza-ostekoa pasatzeko baldintza egokiak ez zituela argudiatuta, bihotzeko balbula aldatzeko ebakuntza ukatu zion Osakidetza, 2020an. Orain, 55 urterekin, bihotzekoak emanda hil da.



Bizikletarentzat antolaketa seguruak aldarri

 BIZI MUGIMENDUA

ANGELU / Ipar Euskal Herriko Metamorfosi ekologikoaren Ituna izenpetzea errefusatu duen Angelu hirian, 200 txirrindularik Bizi mugimenduaren deia erantzun diote eta manifestazioa egin dute, bizikleta bide seguruak galdatzeko Claude Olive Angeluko auzapezari, eta Jean-François Irigoyen Mugikortasunen Sindikatuko lehendakariari. Besta eta protesta giroan ibili dira txirrindulariak. "Izugarritzko tartea bada Angeluko hiriak bizikletaz egiten duen komunikazioaren eta bizikletaren aldeko antolaketaren errealitatearen artean".



Bizikidetza

Eusko Jaurlaritzak maiatzean aurkeztu zuen Udaberri bizikidetza planaren zirriborroa. Hainbat puntu gehitu dizkiote orain, eta presoen ongietorriak "de facto indarkeriaren kultura politikoaren gorespena" direla adierazi dute. ETaren biolentzia erabili eta justifikatu dutenei "gogoeta kritikoa" eskatu diete.

Kalera

Espainiako Auzitegi Nazionalak *Kalera Info* aldizkaria eta *Kalera Kalera* webgunea ixteko agindua eman du. Sortuk larrizat jo du erabakia, informazio eskubidearen eta bizikidetzaren aurkako erasotzat. Alderdiak jarritako helegiteak duen erantzunaren arabera, agindua behin betikoa izango da edo ez.



BURBUILA LEHERTU DAITEKEELA JAKIN ARREN, BITCOINA MONETA OFIZIAL BIHURTU DU EL SALVADORREK

Herritarren nahiaren kontra eginez eta nazioarteko finantza instituzioen aholkuei bizkarra erakutsiz, bere nahia gauzatu du Nayib Bukele presidenteak: El Salvadorreko moneta ofiziala bihurtu da bitcoin izeneko diru birtuala. Estatuek kontrolatuko ez zuten moneta zuten amets kriptodiruen oinarrian ziren anarko-kapitalistek. Helburua lortu dute, ultra-liberalismoan gara, eta espekulatuz aberastu nahi luketenen paradisu ere osatu dute. Anitz irabazi daiteke bitcoinekin, baina anitz galdu ere. Goiz ala berant burbuila espekulatiboa lehertuko dela diote ekonomialari anitzek.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Bitcoin El Salvadorreko moneta ofiziala bihurtu zen irailaren 7an. Lehen aldia da estatu batek bere moneta gisa ofizializatzen duela 2008ko krisi finantzarioaren biharamunean sorturiko moneta birtuala. Halakorik ez zuten nahi herritarrek -%70 aurka, zundaketen arabera-; ekonomialari andanak ere zuten alarma gorria pizturik; eta nazioarteko finantza instituzio boteretsuek ere ez zuten begi onez ikusten erabakia -Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankuak publikoki deitoratu zuten El Salvadorreko Gobernuaren xedea-. Hala eta guztiz ere, Bitcoin Legea ekainaren 9an bozkatu eta irailaren 7an legala bihurtu zuen Nayib Bukele presidenteak. Bitcoin ez pagatu ahal izateko "Chivo" aplikazioa sortu eta kargatzen zuen orori oparitu zion 30 dolarren heina kriptodiruz; eta 200 bat *Punto Chivo* leihatila instalatu berri dituzte -batzuk ez dute luzaz iraua, kontrako protesten baitan bakar bat baino gehiago dituztelako erre-.

Pentsa zitekeen "historiko" gisa aurkezturiko egun horretan balioa hartuko zuela monetak, baina ez: egunaren hastapenean 52.000 dolarreko balioa izatetik 46.000 dolarrekoa izatera pasa zen egunaren bukaerarako. Hori horrela, 24 orduz 2,7 milioi dolar galdu zituen El Salvadorrek, balioa galdu zuten 550 bitcoin erosi zituelako 28,4 milioi dolarretan. Herritarrek ere sentitu zuten merkatuaren fluktuazioa: "Nolaz egu-

na 30 dolarrekin hasi eta 28 dolarrekin bukatzen dut, jakinez dirua ez dudala ezertan gastatu?" zebiltzan galdezka sare sozialetan. Nonbait fluktuazio hau da kriptodiruen funtsaren albo-kaltea, eta ez dago saihesterik.

Baina zer da bitcoin eta zer dira nazioartean loraturiko 6.700 kriptodiruak? Sinpleki esplikatu daiteke finantzaren esparruan emandako urrats berri hau? Moneta nazionalak ez bezala, kriptodiruak ez dira inprimitzen eta ez dago estaturik, hots, banku zentralik trukaketen kontrolatzeko eta erregulatzeko. Algoritmoen bidez segurtatzen da iruzurrik ez egotea: bitcoin bat erosterakoan, kriptodiruen sareko kideek -*meatzari* deitutakoek- jasotzen dute informazioa, ahal bezain laster asmatu beharreko kalkulua matematiko batekin -*Proff of work* edo "Lanaren frogia" deitzen zaio fase honi-. Kalkulua asmatzeak dakar bitcoinen sorrera, kalkulua argitu dutenak bitcoinez sarituz gainera, eta bide batez, transakzioa benetakoa eta zintzoa dela segurtatuz. Azkenean, *Proff of work*-ek banku zentralaren funtzioa betetzen dute -ordenagailuen aktibitateak kostu ekologiko ikaragarria ondorioztatuz (ertz hau ondoko *Net Hurbil*-ean jorratuko dugu)-. Dena dela, bitcoin kopurua 21 milioitara mugatua da, Satoshi Nakamoto ezizenaren gibelean den sortzaile anonimoak horrela programaturik afera. Gaurko egunean bitcoinen %80 sorturik da eta algo-

ritmoei segi, 2140an sortuko da azkena, ordura arte ekoizpena bakanduz. Une oro eskaria eta eskaintzaren arabera eraldatuz doa kriptodiruen balioa: erosle gutxiago denean balioa txikiagoa du eta alderantziz, erosle gehiago denean balio handiagoa. Finantza merkatuan bezala beldurrak, zurrumurruak eta imitazioak pisu handia dute kriptodiruen esferan, eta ez denez erregulazio mekanismorik, balioa alde batera edo bestera doa, krak baten arriskua erreala bihurtuz. Irailaren 7 horretan Bukelek uste bazuen ere balioak gora egingen zuela, beheara egin zuen, 2,7 milioi dolarren heina lapurtuz salvadortarrei. Ongi etorri ultraliberalismora, kapitalista espekulatuzaileek amesturiko errealtate birtual errealerara.

HEGOKO HERRIETAN GORA DOA

Alta, berea laudatzen segitu zuen Bukelek: "Berrikuntza guztiek bezala bitcoinen prozesuak ere ikaskuntza fase bat eskatzen du. Etorkizunerako bide guztiak horrelakoak dira, eta ez da guztia egun batean lortuko, ezta hilabete batean ere. Iraganeko paradigmak hautsi behar ditugu, lehen mundurantz egiteko eskubidea du El Salvadorrek". Iparreko herri aberatsen multzora sartzeko bide gisa ikusten du beraz bitcoin.

Erabaki honi esker salvadortarrek 400 milioi dolar aurreztuko lituzkete, bitcoin hautatuz gero, diasporatik bidalitako sosen gaineko banku gastuak



SALVADORTARRAK AURKA.

Bitcoina El Salvadorko moneta ofizial bilakaraztearen aurka da herritarren %70. Behin baino gehiagotan atera dira karrikara desadostasuna adierazteko.

arras apalagoak izanen dituztelako. Pisu handia du diasporak 6,5 milioi herritar dituen herri ttipi honetan: BPGaren %22 osatzen du honek igorritako dirutzak. Bestalde, bankuen zerbitzurik ez dutenek bitcoina erabiltzeko aukera luketela errepikatzen dabil presidentea –%70ak ez du banku konturik El Salvadorren–.

Financial Times-ek plazaraturiko *Cryptocurrencies: developing countries provide fertile ground* ("Kriptodirua: garapen bidean diren herrien lur emankorra") artikuluan ageri da Hegoko herri andana batean dutela kriptodiruek fama ona. Sektorea aztertzen dabilen Chainalysisen sailkapenari segi, moneta hauen hoge erabiltzaile nagusien artean ia guztiak dira garapen bidean diren herriak –AEB izan ezik–. Saharaz hegoalde-

ko Afrikan dira bitcoin gehien trukutzen. Hots, finantza eta banku sistema kaskarra duten herrietan dabil indartsu, hala beharrez, besterik ez dutelako –dema-gun, inflazioak joa duen Nigeria, lekuko monetarik gabe eta dollarraren menpe den El Salvador eta finantza krisi bortitza bizi duen Libano–.

El Salvadorreko Gobernuaren erabakiak ez du bitcoinaren erabilpena orokortuko, Cesar Villalona ekonomialariaren ustez: "Kalean bitcoina ez da erabilia eta ez da erabiliko. Azkenean, haien helburuak betetzeko dabilta: "Chivo"-ren kutzazainen negozioarentzat, aberats bakar batzuen espekulaziorako eta diru zikina zuritzeko". Orokorki, eguneroko salerosteetan ez da usu erabilia eta monetari lotzen zaizkion hiru funtzioak ez

ditu osoki betetzen (trukerako medioa, balorea erreserban mantentzeko medioa eta balorea zenbatzeko unitatea), justuki aldakorregia delako. Haatik, kontrol-erak eta anonimotasunak ahalbidetzen ditu Villalonak zerrendaturiko helburuak.

Goiz ala berant krak bortitz bat gertatuko dela diote gehienek. Haien artean dugu David Golumbia ikerlari eta informatikaria: "Burbuila espekulatiboa da. Duela gutxi, bitcoin batek 20.000 dolar balio zituen, gaur berriz 4.000 dolar. Burbuila lehertuko da, eta berri ona dela uste dut, jende askori eragotziko diolako bitcoinean inbertituz dirua galtzea". Iparrereko herrien postura segitu eta arretaz jokatu beharko lukete Hegoko herriek, sistema kraskatuko denean kolpea ikaragarri bortitza izanen delako. ●

Betaurrekoak
Lente oftalmikoak
Ukipen-lenteak
Optometria

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



ZINKUNEGI
OPTIKA

Mikel Santos, *Belatz*

IRUDIGILE IRUDIMENTSUA



NESKA ASKORENTZAT ERAKARGARRIAGOA DA MANGA, EMAKUMEZKO PROTAGONISTA GEHIAGO DAGOELAKO



Lucio Urtubia Cascanteko anarkista ekintzailearen bizitza izugarria eleberri grafiko batean kontatzeagatik ospe handia lortu du azken hiru urteotan, baina ibilbide luzea du *Belatz*-ek marrazkigintzaren hainbat alorretan.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Marraztea zure betiko pasioa izan da?
Txikitik topiko guztiak betetzen nituen: liburu guztietan marrazten ibiltzen nintzen eta gero irakasleek errieta egiten zidaten. Beti gustatu izan zait, baina aitak ez zidan utzi Arte Ederrak edo diseinu grafikoa ikasten eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza egin nuen. Gero sorosle lanean aritu nintzen, baina denbora aurrera joan ahala gero eta garbiago ikusten nuen marraztea zela benetan egin nahi nuena. Nire marrazkiak leku guztietara bidaltzeari ekin nion eta horrela lortu nuen, adibidez, ekonomia egunkari batean umore grafikoko atal bat egitea. Grazia handirik ez nuen, baina tira. Orain ez nuke halakorik egingo. Hasieran ikusgarritasuna edota dirua ematen zidan guztia hartzen nuen.

Gainera, honetan lan egin ahal izateko, tematia izan behar duzu eta toki guztietara deitu lotsarik gabe. Egun, zorionez, zer lan egin erabaki dezaket. Honetatik bizitzea oso konplikatu da, baina lor daiteke.

Kukuxumuxun ibili zinen hainbat urtez. Nolako esperientzia izan zen?

Askatasun handiarekin aritzen ginen hor, gaur egun Katuki Saguyakin bezala. Oso giro ona genuen Kukuxumusuren lan taldean eta denon artean egiten genituen marrazkiak. Horretarako asko ikasi behar izan nuen, baina lehenbizi deskiasi buruan nuena. Horren marrazki sinpleak eta sintetikoak egitea oso zaila da. Orain Iruñeko udaletxea egin dezaket lau lerroekin, adibidez. Ni ilustraziotik nentorren eta

ez nuen ulertzen, baina bikain etorri zait sintetizatzen ikasteko.

Katuki Saguyakin ari naiz orain lanean Mikel Urmenetarekin. Oso priektu interesgarria da, baina oraindik asko garatu behar da. Berriki autismoaren inguruko film labur bat egin du Bult zezena protagonista duena eta Goya sarietara aurkeztuko da.

Azkenean epaileek erabaki behar izan zuten Urmenetaren pertsonaiak Urmenetarenak zirela... Zeinen bukaera tristea, ezta?

Bai, merkantzia egiten ari ginela zirudien. Transferitutako 8.000 marrazkiak ez ezik, pertsonaiak ere guk ez erabiltzea nahi zuen Ricardo Bermejo jabe berriak.



Mikel Santos Martínez

IRUÑEA, 1974



Marraskilari, gidoilari eta ilustratzailea Kukuxumusuren marrazkien lantegiko kidea izan zen 2008tik eta gaur egun Katuki Saguyaki, Mikel Urmenetaren sormen taldeko kidea da. Estatu mailan zein nazioartean, haurrentzako hainbat ipuin ilustratu ditu. Gainera, testuliburu, kanpainan instituzional eta iragarkietarako lanen egile edo egilekide da. Bere lanen artean Osasuna Fundazioarentzat eginiko *90 minutos en el Reyno* eta Nafarroako Gobernuaren enkarguz sortutako *Abentura bat hiru garaitan* komikiak azpimarra daitezke. 2018an Txalapartarekin argitara emandako *Gerezi garaia-El tesoro de Lucio*, Lucio Urtubia anarkista nafarrari buruzko eleberrirako grafikoa, ziu-rrenik, orain arteko bere lanik onena da. Musikaria ere bada *Belatz*. Pianoa jotzen du eta Swingaraia taldeko kidea. Iazko otsailean lehen diskoa kaleratu zuten.

Ezin nuen sinetsi nola egon gintezkeen akusatuen aulkian eserita epaiketa batean, pelikuletan bezala, marrazkiak egiteagatik.

Egiten duzunetik, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Komikia, nobela grafikoa, zuk zeuk dena egin behar duzulako. Erronka handiagoa da eta adrenalina ere ikaragarria.

Arlo honetako nire lehen esperientzia nahiko gogorra izan zen. Nafarroako Gobernuak [Yolanda] Barcinaren garaiaren enkargu bat egin zidan 1512ko V. mendeurrena zela eta, haurrentzako komiki bat egiteko ele biz. *Abentura bat hiru garaitan* izena zuen. Gidoia eta marrazkiak egin nituen, dena onartu zuten eta jada inprentan zegoelarik errotatiba geldiarazi zuten goiko norbaitek irizpide politikoekin irakurri bide zuelako. Zegoen bezala ez zela onargarria eta zuzenketa piloa egin behar zela esan zidaten. Hiru historialarirekin aritu nintzen lanean eta haiek ere ez zeuden batere ados zuzenketekin. Eztabaida gogorra izan genuen. Azkenean gauzatxo gutxi batzuk aldatu nituen eta haiek nahi izan zuten hitzaurrea erantsi zuten. 2011n inprimatu zuten, baina gero haren zabalanderik ez zuten egin, haien gustukoa ez zelako izan. Ondoren Osasuna Fundazioak haurrentzako beste komiki baten enkargua egin zidan eta horrekin gusturago gelditu nintzen.

Gero Lucio Urtubia anarkistaren biografia ilustratu itzela egin zenuen. Pozik?

Bai, erabat. *Gerezi garaia-El tesoro de Lucio* du izena. Seigarren edizioa doa gaztelaniaz, laugarrena euskaraz eta, honetaz gain, frantsesez, katalanez, galegoz eta danieraz ere badago. Copenhagen izan nintzen honen aurkezpena egiten.

Egia esa, Lucioen lana bai izan dela gozokia. Ideia Txalapartarena izan zen. Lucio Durangon ikusi zituen antzeko lanak eta esan zuen berak ere nahi zuela bere bizitza kontatu *“en dibujicos”* eta argialetxeak niri proposatu zidan hori egitea. Lehendik bere istorioa ezagutzen nuen pixka bat. Gero bere liburuak irakurri nituen, bere bizitzaren dokumentala ikusi eta gainera aukera izan nuen berarekin elkartzeko hainbat aldiz Cascanten eta Parisen. Niretzat benetako altxorra Lucio bera ezagutzea izan da. Bizitza aldatu dit. Pentsatzeko modua, egunerokoa... Orain argi ikus-

ten dut ez dugula horrenbeste gauzarik behar bizitzeko. Lehen ere ez nintzen oso materialista, baina orain are gutxiago. Berarekin egon ondoren pilak kargaturik eta gauzak aldatzeko ilusioarekin itzultzen nintzen etxera. Laurogeitaka urte luze zituen eta ekintzaile suharra izan zen bukaerara arte. Bere eredu ikusita, ni ere gauzak esateko eta aldatzeko garaiz nabilela sinetsita nago.

Berari gustatu zitzaion *Gerezi garaia*?

Bai, asko! 2018ko maiatzean irakurri nion Parisen, ordenagailuan. Hunkigarria izan zen. Negar egin zuen hainbatetan. Liburua egin bitartean berarekin borrokatzea oso kontu bitxia zen, baina jatorra zen oso eta azkenean familia-kotzat hartzen genuen elkar. Berak ere bere baldintzak jartzen zizkidan aldi oro. Halako pertsonari buruz zerbait ez esateko bizirik zegoelako edo Cascanten ezaguna zelako. Jite honetako gauzak maiz esaten zizkidan.

Oso pertsona interesgarria zen. Berak zioen bezala, Cascanteko igeltsero xume bat, soilik parrokiako orria irakurria zuena. Esaten zuen bere zortea ezjakintasuna izan zela, horregatik sartu zela lapurreta eta faltsifikazio afera haietan. Parisen CGTko anarkistekin topo egin zuen, baina haiek musika entzun eta poesia irakurri eta idatzi besterik ez zuten egiten. Lucio ekintzaile hutsa zen eta horregatik anarkista izan zen anarkismoaren barruan. Ez zen inoiz afiliatu CNTn. Lucio lana goraipatzen zuen. Niri askotan galdetzen zidan ea bukatua ote nuen liburua, eta ezetz esatean alfer hutsa nintzela erantzun ohi zidan.

Berriki Gayarre antzokira eraman duzue Lucioen bizitza jazz musikaz lagunduta. Nolako nahasketa suertatu da?

Oso bitxia. Hau zen Lucioi falta zitzaiona. Ikuskizunean Lucioen ahotsa entzuten da, nire marrazkiak ikusten dira... eta hori dena zuzeneko musikak lagunduta. Gainera, nire ustez jazz oso ongi uztartzen da Lucioekin, jazzean nolabaiteko anarkiarekin jo behar delako.

Orain zer duzu eskuartean?

Orain, *Xabiroi* Ikastolen Federazioaren komiki aldizkarirako ari naiz lan bat egiten, *Ene Kantak* telebistako saioaren fondo guztiak egiten ditut eta nobela grafiko berri batean ari naiz lanean.



Zertaz doa?

Gerra ondoko Galizian dago kokatua eta horregatik han izan naiz udan bi hilabetez. Egiazko gertaeretan oinarritua dagoen fikzioa izango da. Apaiz falangista guapoa da protagonista, pistola eta motorra dituena.

Komikigintza nola ikusten duzu, oro har?

Gero eta kalitate handiagoa dago. Baliabideak etengabe asmatzen dira. Paco Roca bezalako marrazkilaria hartu eta entziklopedia moduko bat dela ikusten duzu.

Komikien osasuna ona dela esan daiteke. Euskal Herrian, oro har, asko irakurtzen da. Durangon aski ongi ikusten da hori, adibidez. Astiberri, Harriet edo Txalaparta bezalako argitateen lanak oso onak dira eta asko saltzen dira. Nik uste dut egunetik egunera irakurlegoa zabaltzen ari garela, baina honen aurrean esan behar da egileok oso posizio ahulean gaudela. Guk %10a besterik ez dugu irabazten. Ordua oso

merke ateratzen zaigu eta batzuetan ez digu merezi lan batzuk egitea. Hori dela eta, orain hainbat mugimendu eta negoziaketa ari dira egiten han eta hemen, egoera hori aldatzeko asmoz.

Eleberri grafiko eta komikia gauza bera da?

Eleberri grafiko hasi dira orain deitzen seriotasun gehiago emateko. Liburutegietara iritsi dira, ikasgeletan memoria historikoa kontatzeko balio dute, sari nazional bat eratu da eta orain jada ez da soilik haurrentzako denborapasa bat. Izan ere, gero eta jende gehiago dago 50 edo 60 urtekin komikiekin zaleztzen hasi dena.

Harreman handia du komikiak zinemarekin, baina zeintzuk dira aldeak?

Harreman estua du zinemarekin bai, baina zineman egileak ezin du filma gelditu. Komikian, aldiz, zuk markatzen duzu erritmoa. Zuk erabakitzen duzu irakurleak azkar edo motel irakurri behar duen, eta alde batetik edo beste-

tik eramaten duzu. Hori da gehien gustatzen zaidan erronka.

Komikizaleak frikiak dira?

Bartzelonako komikiaren aretoan Supermanez jantzen diren horiek komikiaren parte bat dira, baina besterik ez.

Baina alternatiboa bai badela komikiaren mundua, ezta?

Badira komiki komertzialak eta egurraren ematen duten komiki eta fanzineak, *TMEO*, *El jueves*, *Napartheid*... Ni *TMEO*n izan nintzen. Ez zuen dirurik ematen baina bada hasteko eta jendearengana iristeko modu bat eta, gainera, oso betegarria da nahi duzuna esatea.

Artistak oso ergelak ginateke sistemaren aurka joango ez bagina, gehienok oso bizimodu prekarioa dugulako.

Eleberri grafikoak irakurle alferrentzat dira?

Ez pentsa, batzuetan komikia ere irenseteko astuna egin daiteke. Ohiturarik ez baduzu zaila gerta daiteke komikia irakurtzea. Ezkerretik eskuinera joan behar izatea, zein ordenenean irakurri bokadi-loak... hori dena ikasi behar da. Normalean irakurle txarrek zailtasunak izaten dituzte komikiak irakurtzean.

“
**Niretzat benetako
altxorra Lucio
bera ezagutzea izan
da. Bizitza aldatu dit.
Pentsatzeko modua,
egunerokoa...”**



Nola doa kontsumoa euskarri digitalean?

Komikizaleari papera gustatu ohi zaio. Orrialdeak binaka irakurtzen dira eta tentsio uneak eskuineko orrialdeetan geratzen dira, baina haien amaiera beti ezkerrekoetan, begi bazterrez ez ikusteko. Hori euskarri digitalean galtzen da. Digitalean irakurri ditut batzuk, merkeago delako, baina jakinda ez nuela horren gustura irakurriko.

Zer moduz moldatzen zara ematen dituzun tailer eta hitzaldietan?

Gustura. Haurrak askotan harrিতта gelditzen dira ikusita zeinen erraz egin daitezkeen marrazkiak. Ongi dago, gainera, ogibide hau ezagutzera emateko eta aldarrikatzeke. Eta ilusioa egiten du ikusteak zure klastetik pasa den batek marrazten jarraitzen duela. Hitzaldietan ere gozatzen

dit. Psikiatrikoan eman izan ditut, Paris 365ean, gor-mutuen elkartean eta Iruñeko kartzelan, besteak beste.

Komikien mundua matxista da?

Hitzaldi bat eman nuen komikigintzan dagoen genero arrakalaz. Hasten bazara komikien izen ezagunen zerrenda egiten, egile ia guztiak gizonetzkoak direla ateratzen zaitzu eta emakumezko pertsonaia bat ateratzen denean zerbait txarra izango du edo norbaiten bikotekidea izango da.

Urtetan behartu dituzte neskak komikia gustukoa ez izatera. Beren esparrua ez zuten hor ikusten. Emakumeen papera marrazki bizidunetan nazkagarria da. Disney ikaragarria da. Gizonezko batek salbatu behar ditu beti neskak. Ilustrazioaren alorrean emakume gehiago ibiltzen da, baina komikigintzan oso gutxi. Orain hasi dira sartzen


eta protagonistak ere badira. Argi dago neska askorentzat erakargarriagoak direla manga komikiak emakumezko protagonista gehiago dagoelako. Eta emakume egile gehiago ere bai. Marrazkigintzan nire ikaste prozesua hipermatxista izan da eta ikaragarri kosta zait gauza batzuk ikustea. Ez nintzen kontzientea.

Zergatik adin batean uzten diogu marrazteari?

Behartzen gaituztelako. Denbora galtzea bezala ikusten dute askok. Orain, aldiz, hasi dira ohartzen, hezkuntzan adibidez, oso egokia izan daitekeela memoria historikoa lantzeko. Arteak, oro har, laguntzen digu zoriontsuago izaten, sortzaileok beti ari gara zerbait pentsatzen.

Ni gehian kezkatzen nauena belau-naldi berrien salto handia da. Orain asko dira tresna digitalak erabiltzen hasten diren marrazkilariak. Oso ongi dago eta gehienok erabiltzen ditugu, baina modu analogikoan ere jakin behar da marrazten. Itzalaldi bat gertatuz gero, ez dugu ezer ere egiten jakingo! ●

“
Emakumeen papera marrazki bizidunetan nazkagarria da. Disney ikaragarria da. Gizonezko batek salbatu behar ditu beti neskak”



Txokolatezko palmera erraldoia



ANA MENDIA
EMAGINA

Hiru urte barru Gazte-txartela iraugiko zait. Horrela derrepentean. Diru-zorroan ez dut izango nire freskotasuna egiaztatzen duen inolako agiririk, ze *Visa Debit K26+* beltzak ematen duen tregoa ere akabo. Ondo bidean, lehen munduko drama arin hau argitaratu eta 922 egunetara zapalduko dut helduaroa. *Welcome to the thirties*, ai ama!

Neurri batean badut datorkidan aroa zapaltzean zer sentituko dudan jakiteko kuriositatea; askori entzun baitiet, adibidez, konplexuak edadearekin desagertzen direla. Zer gertatuko ote da hori ere derrepentean? *Visa Classic*-arekin batera debalde autoestimuko kupoia. Hori bai ona! Kontziente naiz neroni pribilegiotik ari naizela hizketan: emakume txuri cis-genero hetero gorputz normatiboduna naiz; alegia, eroso nago munduak ni ikusita egiten duen irakurketarekin. Kilo, ile, ildaska, zelulitis eta bestelako inperfekzioak muga onargarrietan. Titi txikiegiak eta bizkar zabalegia maskulinitate tradizionaletik begiratuta, baina, tira, hondartza honetan ez dut uste inork burua bueltatuko duenik ezer komentatzeko. Pelotoiaren babesetik ari naiz, alegia. Eta, halere, Kanarietaraino etorri behar izan naiz uda guztian jantzi ez dudan

bikini loredua estreinatzerara (ze, total, hemen ez nau inork ezagutzen). Marka da gero!

Apustu egiten dut ariko dela baten bat bere kolkorako sermoia prestatzen: "Kontua norbere buruarekin gustura sentitzea da, neska. *Love your body*. Gainerakoei hor konpon!" Eta azken perla, gero: "'Edertasuna barruan dago'. Ados: harea zoragarri honetan botata eguzki izpiek eta olatuen hotsak sorrarazten didatena ezin du beste baten epaiak lausotu. Teoria badakit: "Ederra izatea eder sentitzea da. Senti zait ez eder" (Mr. Wonderful, 2021).

Bada, ez dakit teoria horren oso zalea naizen. Adibide bat. Nigandik metro gutxira lodi dagoen neska batek orain ordubete edo zabaldu du toalla. Eguzkipean kiskaldu, bainu bat hartu eta hamaiketakoa atera berri du: sekulako itxura duen txokolatezko palmera erraldoia. Uste dut eszena ikusita askok honakoa ondorioztatu dugula: gaizki jaten du eta segurutik ez du kirolrik egiten. Neronek otordu bera egingo banu, ordea, emaitza beharbada honakoa litzateke: oporretan dago eta bizitzaren plazer txikiez gozaten ari da. Palmera bera bekatu bataren eskuetan eta bertute bestearenetan. Bekatariak penitentzia gero: kontzientzia-azterketa, errua,

konfesioa, ordaina eta absolutzioa. Baina *love your body*.

Ea klaratzen naizen: ispiluren besaldekoea gustuko ez izateagatik gaizki sentitzearekin nahikoa ez eta gaizki sentitzen gara gaizki sentitzeagatik (gogora dezagun teoria: edertasuna hautua da). Hitz egin dezagun gordin, mesedez: lodiegi, itsusi, argalegi, iletu edota zelulitidun ikus gaitzaten ez da eroso. Baldin eta ez bagara erotzen, ezin gara errealitatetik horren erraz disoziatu. Delirioa edo mina: horratx hautua.

Ez dut uste ez palmera jan duen neska ez nik (ez beste inork) gogoko dugunik gure ustezko inperfekzioei begiratzen diegun bakoitzean tripak nola nahasten zaizkigun antzematea. Eta akaso izango da ez naizelako oraindik behar bezain heldu, ez dakit, baina apur bat amorratzen naiz sabeleko mina izatea nire erabaki hutsa dela diotenekin. Autoestimuko kupoia postontzira heldu bitartean, beraz, jarraituko dut delirioaren eta minaren arteko borroka horretan bizirauten. Ohartu naiz buruari bueltak emanda lasaitzen zaidala urdaila. Eta, aizue, mundua aldatu ezean, ni ezingo naiz hondartzara etorri bertako neska puska izatera, baina paletan aritzea ez dago gaizki. ●

Bada opotepe dapakipizupu?



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Duela bi edo hiru aste, nonbait han, *Iparraldeko Hitza*-ren bidez zabaldu zen berria, Beñat Oiharzabal eta Irantzu Epelde ikerlariak azterlan bat eramanen dutela "apaepe" deitu hizkerari buruz. Bide beretik deialdia zabaltzen zuten: lekukoan bila dabilta.

(Gor)aipamena merezi du, duda izpirik gabe, hasteko, gramatikaren eza-gutza eta maitasuna transmititu zidan Beñat irakaslearekiko esker onez, baita haren ikerketarako tirriaren txalotzeko.

Kokatzeko, molde arras ez akademiakoan baina ideia baten emateko, apaepe hizkuntza kodetua da, argota baino sekretuzko hizkera, ez banaiz oker izen zientifikoa luke *kryptolekto*, erran nahi baitu ahozko hizkera dela, bakarrik komunitate jakin bateko kideengandik ulertua; bi hizkuntzen arteko txertaketa suposatzen du, baina ez litzateke ez *pidjin* ez *sabir*, baizik eta komunikazio premiatic sortutakoa, zerbait funtzionala eta aldi berean doi bat fantaskoa.

Euskaldunoi ezezagun bazaigu, frantses kulturaren adibideak ez dira eskas, halaxe bailirateke javaniera, largonji, verlan edo cadogan, haratago britainiarren polari. Eta segur aski munduan zehar beste anitz.

Anitzetan klase sozial edo komunitate jakin batek du erabiltzen, Euskal Herrian buhame deituek, Irlandan dock-etako langileek, Britainia Handian komunitate homosexualak, hots erran dezakegu komunitate marjinalak. Maiz gaiztaginen, lapurren eta sorginen hitz egiteko molde gisa kontsideratuak dira. Batzuek bizirik diraute, verlan delakoaren antzera, beste zenbaitek bizirauten du literaturan, hala nola Gainsbourg-en Javanaise kantuan, edo Queneau idazlearen obra bateko pertsonaia baten bidez.

Gertatu izan da ikertuak izatea, adibidez Frantziako CNRS ikertaldeen, baina ardura ez da hala gertatzen eta Euskal Herriaren kasuan, erran gabe doa, ez dela orain arte horren inguruko lanik egin, besteak beste, beste premia batzuk baitziren.

Apaepa luzaz uste izan nuen haur joko zela, jostatzeko molde bat, ez nuen baitezpada buhameekin lotura zuzenik egin. Buhameen hizkeraren inguruko oihartzunak izan banituen ere etxean txikitan, berezko hizkuntza irudikatzen nuen. Lehen aldikoz jabetu nintzen apaepaz Barbier idazlearen testuaren bitartez, satiraren zantzuak hartu nizkion eta sinesgaitz geratu, Azkenean Zintzilik eleberritxoan, Larzabal eta Casenaven esku

jostakinak sumatu nituen, baina Itxaroren Zeruetako Erresuman ohartu nintzen ez zela bakarrik Antxitxarburukoan kontua, agian bazitekeela zerbait atzean. Geroztik jakin dut, Euskal Herriko beste lekutan forma antzekoak ere badirela, amaemeka, afaefeka. Zorionekoak gu! Besteen antzera (izan) baititugu gure hizkera sibilinoak!

Irailaren zirimolan, garai gorabeheratsuen artean, pozez eta jakin-minez hartu dut Oiharzabalen ikerlan proiektuaren berri. Gaia seriooki tratatuko delakoan poztu naiz eta aldi berean berrietasun firfira baten gisan irakurri dut horren berri; gaiak baitu presa, interesa eta aldi berean baitu alde friboloa, berrietasun txikien pindar goxoa. Berantetsia dut ikerlanaren emaitza ikustea: nor zuen mintzen, zein kontestutan, zer egiteko, zeren gordetzeko... Galdera horiek oro asetzeko gogoekin naiz beha. Sasoia argitzen dit eta nahiago dut horrela pentsatu, eta ilusioa hazi egun batez euskarak bizitasunik aski izanzen duela berriro sortzaile izateko eta argotak aterako zaizkigula, ikerlanetan baino, herri ortako plazetan.

Opordupuapan epez dupudapa, hipiztupun bapat epezapaguputzepen bapadupuzupu Bepeñapatipi eperapakopuzupu! ●

Begano eta abeltzain txikien arteko aliantza



**KIMETZ ARANA
BUTROE**
BARATZEZAINA

Azken urtean COVIDaren ondorioz, abiadura handian izugarritzko aldaketak eman ditu gure bizimoduak. Egoera berriak gure elikadura ohituretan ere aldaketak ekarriko dituela dirudi.

Aurten izan naizen hainbat baserritan, kezkatuak, artifizialki sortutako haragi sintetikoaz hitz egiten entzun dut lehenbiziko aldiz. Bizi garen hamarkadan merkaturatzen ikusiko omen dugu eta praktika beganoen ondorioz erraz sartuko omen da gurera.

Haragi artifiziala laborategian sortzen da animalien giharretako ama zelulak biderkatuz. Jeff Bezos, Bill Gates eta munduko aberatsenen bioteknologia enpresak dira produktu honen bultzatzaile nagusiak. Abeltzaintza industrialak sorturiko arazoan aurrean etika, osasuna, aldaketa klimatikoarekiko sostengarritasuna eta animalien sufrimendurik eza dira "plastikozko" haragi hau saltzeko baliatzen dituzten ideiak.

Hirietan eta bereziki gazteen artean asko zabaldu da animalien sufrimendurikiko kontzientziak haragirik ez jateko ohitura. Pentsamendu horrek ordea ez du jaten dugunarekiko kezka ekarri. Horrela bitxia zait begano lagunei jaten dugun letxugaren jatorri, kimika edo produktzio sistemaren inguruko kezkarik ezumatzea.

Horrez gain, badira gure haragiaren kontsumoa murrizteko beste hainbat arrazoi. Osasuna, munduko biztanleriak hainbeste haragi jateak dakartzan desorekak, abeltzaintza industrialak sortzen duen kutsadura, ur eta zerealen kontsumo handia, sortzen dituen elikagai toxifikatuak eta abar.

Abeltzain guztiak ordea ez dira industrialak. Badira ekologikoan eta inguruko baliabideak erabiliz, abereak maitatu eta haragi osasuntsua sortzen dutenak. Euskal Herrian ez daude hirietatik hain urrun.

Animalia eta pertsonen sufrimenduak aberastasanaren pilaketan oinarritzen den sisteman du jatorria. Hartara, haragi sintetikoaren alde egitea, abeltzaintza industrialaren logika berean doan sistema berria indartzen laguntzea da. Dauzkagun arazoetan sakontzea eta enpresa handien alde egitea, oraindik jende gutxiagoren eskuetan egon dadin gure elikadura.

Naturatik urrundu nahi gaituzte aberats handien langile eta kontsumitzaile esklabo izan gaitezen oraindik gehiago. Horregatik garrantzitsua da baserria eta hiria hurbiltzea, elkar ezagutzuz begano eta abeltzain txikien arteko aliantzak eraikitzea.

Tomatea udan bezala, nik nahiago dut haragia gutxitan baina ona jatea. Denok hobe bizi, hobe jan, osasuntsu eta libreago izan gaitezen. ●

Fikzioaren gramatika III: helburuzko perpausak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala. A. Alieva).

Kosta egiten zaizu zuk hala jokatzeko zuzena ikustea. Erraz ohartzeko zara, ordea, inguruko solaskideak, maiteak izan zein ez, beti aritzen direla gogoan xederen bat dutela. Gordeago nahiz ageriago, orain arte zure bizitzako oholtzara agertutako pertsonaiek hizkuntza modu pragmatiko batean erabili izan dutela urteek berretsita gidoia da. Gaur den egunean ere halatsu gertatzen da:

inguruan dituzun horiek zer lortu nahi duten, kontzienteago nahiz inkontzienteago, hala darabiltzate hitzak. Denak dira, hortaz, helburuzko perpausak. Alabaina, itsusia da norberak dituen helburuez argi mintzatzea. Baita pandemian ere. Azken aldian, harreman bat baino gehiago zapuztu omen duzu "hain zintzoa eta zuzena" izate alde.

Hainbatetan gogoeta egin ondotik, sinetsia zaude zure kasua bestelakoa dela. Izan ere, zure erreperitorio komunikatiboaren ehuneko ezin apalagoa da helburuzko perpausuei dagokiena. *-t(z)eko* urri horiek lekuko. ●

Sakatu 1



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Azkenaldian gero eta luzeagoak zaizkit norabait hots egin eta telefonoz bestalde giza-ahots ez-automatikoren bat aditu bitarteko itxaronaldiak. Robotizatutako agur formulek atezuan jarri ohi nautela sentitzen dut hasiera-hasieratik, eta lasaitu nadin belarriratu uste didaten melodia errepikakorrak ere ez du normalki ni are gehiago urduritzeko ez beste ezertarako balio izaten.

Presazko ezer ez zenez gero, lasaitasunez hartzen ahaleginduko nintzela erabaki nuen, halabeharrez. Egun osoa igaro nuen mugikorrari itsatsita eta hutsarte bat sortzen zitzaidan aldiro lotu nintzaion zenbaki segida berbera behar beste aldiz markatzeari. Deika eta deika jardun nuen, ez dizuet esango zehazki nora. Ez dizuet esango zehazki nora, leku jakin bat izan zelako baina izan zitekeelako beste bat; izan zitezkeelako beste hainbat eta hainbat.

Lehen aldiz deitu nuenetik bertatik suertatu zitzaidan zerbait arraro samar. Erantzungailuko ahotsak aukera desberdinak proposatu nahi zizkidan, nonbait, eta hizkuntzaren inguruan galdegin

Musika, musika, eta musika gehiago, harik eta guztiz gogaitu nintzen arte. Biharamunean, jadanik nahikoa itxaron zuela iritzita-edo, atzamar erakusleak bere kasa egin nahi izan zuen 2 teklarainoko jauzia.

zidan beste ezer baino lehen. Euskaraz erantzutea nahi baduzu sakatu 1, eta hurrenkerari zegokionean behintzat euskara lehenetsi izanak harritu ninduela baina ondo bidean ez nindukeela harritu behar pentsatu nuen neure baitarako. Euskaraz erantzutea nahi baduzu sakatu 1, eta esaldia amaitzerako neukan atzamar erakuslea 1 teklaren gainean.

Zenbaki bidez erantzun beharreko beste pare bat galdera etorri ziren jarraian eta, horien ostean, musika.

Musika, musika, eta musika gehiago, harik eta guztiz gogaitu nintzen arte.

Biharamunean, jadanik nahikoa itxaron zuela iritzita-edo, atzamar erakusleak bere kasa egin nahi izan zuen 2 teklarainoko jauzia. Matxinatu egin zitzaidan, eta ezin izan nuen eragotzi. Musikaren txanda iritsi zen orduan. Bezperako melodia sarkor bera zen baina, zorionez, ez zen bezperan bezainbeste luzatu. Emakume ahots batek eten zuen segundo gutxiren buruan. Gaztelera zuzendu zitzaidan, noski. Neuzkan zailtzak azaldu nizkion eta monotonia aire batez egin zituen nirekikoak. Deiak bi minutu eskas irauan zuen.

Telefonoa eskegi nuenean, pantailari begira geratu nintzen une batez. Adibide egokia iruditu zitzaidan gutaz hitz egiteko. Gure herria alderik alde zeharkatzen duen diglosiaz. Hiztunon burugogorkeriaz, galarazten diguten denboraz, eta, azkeneko, etsi-etsian amore eman behar izateak dakarren frustrazio metatuaz. ●

AMUA
Ximun Fuchs · Maite Larburu · Manex Fuchs
KOMEDIA SENTIMENTAL POLITIKOA
AXUT.EUS

IRAILA	AZAROA
29 Iruñea	4, 5 Hendaia
	10 Larresoro
URRIA	14 Lezo
1, 2, 3 Donostia	9 Zumaia
5, 6 Bilbo	20 Hiriburua
10 Donibane Lohizune	28 Aloze
16 Berriz	
22 Zarautz	
24 Hondarribia	
29 Azpeitia	
30 Barakaldo	
31 Lesaka	

Euneiz unibertitateak: **denona baina ez denontzat**

European University of Gasteiz, Euneiz, unibertitate pribatua badator, edo ez. Josean Kerejetaren Baskonia-Alaves taldeak, Gasteizko Udalak, Arabako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak osatu duten aliantza indartsua dirudi –eta hala ageri da hedabide nagusietan–, baina proiektuak baditu ahuldadeak eta itzalak.

 RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA  DOSPORDOS





Institutuko azken ikasturtea da Krisentzat, astelehena. Nagiak atera eta begiak erdi itxita dauzkala, gaurmahaitik mugikorra arrantzatu du eskuaz haztamuka, betaurrekoak lurrera nola jausi diren entzun du, eta begiak kolpetik zabaldu zaizkio onik dauden begiratzeko. Uf, eskerrak!

Saskibaloi-taldekidea duen Lurren mezua ireki du lehenik, irailaren hasierako albiste bat da El Correo-n: "Eusko Legebiltzarrak Euneiz unibertsitatearen legea zuzenduko du, eskaera berrietara egokitzeko". Itxuraz, 2022-2023an hasi nahi dute ibilbide akademikoa, gaur-gaurkoz egoitza fisikorik ez duten arren. Gaur-gaurkoz ez, baina albisteko argazkian Vital Kutxaren egoitza ageri da -Bakh (Baskoniaren Kirol Hiria) eta Fernando Buesa pabiloiaren ondoan dagoen eraikin ederra-, Euneizen fakultatea bertan izango dela iragarritz. Lurren azpiko mezuan: "Bideo jokoak, kirola, musika, osasuna, ekoizpen digitalak, ingeniariak, jolastuz ikasi, ikasiz jolastu;-)". GIF bat ondoren, Stephen Curry hirukoa saskiratzen.

Ohean jarrera egokitu du Krisek horma alderantz, nola izan lezake hainbeste energia Lurrek astelehen goiz batean? Jarraian, "Euneiz" galdetu dio Google orakulari.

2017an, Alavesek Youtubera igo zuen zazpi minutuko bideoa ikusi du, latza da

egia esateko: ideia, lekua, ingurunea, hizketan ageri diren adituak, politikariak, innovación, futuro, trabajo... Hurrengo ikasturtean matrikulatzeko gogoia eman dio. Baina zalantzak ere baditu, gogoratu du Bakh-en bertan abiatu eta ezerezean geratu zen Montessori School eskola, 2019an itxi zituela ateak: lizentziarik ez, gehiegizko klausulak kobratzeagatik auzi bat galduta, zuzendaria auzipetua...

Badirudi, oraingoan oztopo nagusia uztailen unibertsitateetan kalitatea bermatu aldera onartu zen espainiar errege dekretu bat dela. Dekretu horrek tramitazio betean harrapatu duenez, Euneizek bost urte izango omen ditu egokitu ahal izateko. Eusko Legebiltzarra bidelagun izango du EAJ, PSE eta PPren babesarekin. Izango al da Urkullu eta Sánchezen arteko negoziazioetarako beste gai bat? Zaila da aukeratzin: AHT, espetxeak, frackinga, eta orain, Euneiz ere bai.

EH Bilduk eta Podemosek legebiltzarraren salatu dute unibertsitate pribatu horren finantzazio publikoa. Izan ere, proiektuaren bultzatzaileek eman duten informazioaren arabera, Baskonia-Alaves taldeak 64 milioi euroko inbertsioa izango duen enpresa zentroa eraiki nahi du Bakh-en ondoan: nazioarteko ikastetxe bat, garapenerako eta teknifikaziorako zentro bat, 350 ikasle eta kirolarientzako egoitza bat, ekintzailetzarako

eta enpresa garapenera laguntzeko zentro bat eta kirol ikerketa eta medikuntzarako beste zentro bat. Hau gutxi baltitz, Salburuako parkea eta hezegunea, Baskoniaren kantxa eta Bakh bera ere campusean bertan egongo lirarteke: igerileku ederra, izotz pista, kirol-kantxak, gimnasioak... Lur eta Kris bezalako gazte kirolzaleentzat nekez imajina liteke leku erakargarriagorik, zinez. Ez dira haientzat motibo ederrenak, baina tira: bultzatzaileek iragarri dute 750 lanposturen sorrera, Arabako Barne Produktuari egingo dioten ekarpena, Araba eta Euskadiri horrelako proiektu berritzaile batek ekarriko dizkion erreferentzialtasuna, gazte talentudunenak erakartzeko ahalmena, ekonomia berpizteko gaitasuna, berdea, eko, bio...

DENEN BULTZADA PUBLIKOA

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak aurkeztu eta babestu dute proiektua Europako Funts publikoen laguntza jaso dezan. Berriki, Donostian eginiko elkarretaratze batean, LAB, Steilas, CCOO, ELA, LKN, Ernai eta Ikasleen Kontseiluaren ordezkariak salatu dute funts horien bidez Euneizek 12,5 milioi euroko dirulaguntza zuzena jasoko lukeela. Horrez gain, ekainaren hasieran, Ana Oregi Lurralde zinegotziak jakinarazi du Gasteizko Udalak 480.000 euroz lagundu-



ko duela egitasmoa. Foru Aldundiko diputatu nagusi Ramiro González hitzetan, "sinetsita gaude Euneizek lurraldeari egingo dion ekarpenaz. Egitasmo positiboa da. Ez da baztertzailerik". Esperokoa da, ondorioz, denontzat ei den unibertsitate hau Aldundiak ere zuzenean diruz lagunduko duela. Edo dugula.

Bien bitartean, EHUKo Zuzendaritza prest ageri da 2020ko aurrekontuan izandako hiru milioiko defizita 2021ekoan 'orekatzeko'. Nola? Bada, gastuak txikituz eta murrizketak eginez. Baina aurrerago helduko diogu EHUREn egoerari.

ENTI ETA EUSES

Euneizen agerpenak jarraitu dituena ohartuko da Ramiro González diputatu nagusia, Saski Baskoniaren lehendakari Josean Kerejeta, Gasteizko alkate Gorka Urاران eta Iñigo Urkulluz gain, beste gizaseme eta sigla batzuk ere ageri direla: ENTI (Escola de Noves Technologies Interactives) eta EUSES (Escola Universitària de la Salut i l'Esport) katalanak.

Izatez ez dira unibertsitateak, unibertsitatera atxikitutako eskolak baizik, graduak eta masterrak eskaintzen dituztenak. EUSES lotuta dago Gironako unibertsitatearekin eta Bartzelonako ENTIrekin. Euneizen eredu diren eskola

"Euneizen fakultatea Vital Kutxaren egoitza ohian ezarri nahi dute, Bakh (Baskoniaren Kirol Hiria) eta Fernando Buesa pabiloia dauden eremuan".

horiek unibertsitateak ez izateak ere zer pentsatua ematen du. Horrez gain, Euneiz ez da poltsiko guztien eskura izango; Daniel Sintas izeneko ENTIko ikasle ohi batek El Pais egunkarian (2018/VI/27) esana: "Karrera garestia da, 8.500 euro urtean. Ordaindutako praktikak bilatu behar izan nituen". EUSESen kasuan, kirola eta teknologia berriekin lotutako 60 kredituko graduak 6.000 eta 8.000 euro artekoak dira. Hain zuzen ere antzekoa da 2.000 ikaslez osatu nahi duten Euneizen bultzatzaileek aurreikusitako urteko kuota, 8.000 euro.

Ez da diru gutxi Krisen familiarentzat. Beharbada, berak ere lan bat lortuko balu? Agian ikasturte honetan bertan saiatu beharko luke zeozertan, ez luke nahiko gurasoak kreditu bat eskatzeko atakan jartzetik. Dena den, eta espainiar dekretu horrek unibertsitatea izatea eragotziko balu? EHUrekin lotuko litzateke Euneiz? Ez dirudi EHUko irakasle eta ikasleen ordezkariek oso pozik daudenik aukera horrekin.

ETA EHU?

EAEko unibertsitate publikoko irakasle, langile eta ikasle gehienak ez daude Euneiz diru publikoz bultzatzearen alde, areago, uste dute EHU kaltetzen duela. Steilas-ek emandako datuen arabera, 1997tik hona unibertsitate-ikasleen kopurua ez da aldatu, hala ere, unibertsitate pribatuak gero eta

Josean Kerejeta

Gasteizen Josean Kerejeta aipatzea kristaua izan eta Jainkoari buruz aritzea bezalako zerbaite da: Elizak izan baditu argi-ilunak, baina bekak da Jainkoaren izena ahotan alferrik hartzea. Bekak, beraz, Euneizen argi-ilunei buruz jardutea.

Baskoniak Mendizorrotzako pabilioian jokatzeko zuten, bere moduko beste edozein probintziako taldeek bezala eta hiru langile zituen klubak. Orduan pentsaezina zen egun 15.500 lagun sartzen diren Buesa Arenan jokatzeko, pentsaezina Baskoniak ligak eta kopak irabaziko zituen taldea bilakatu zitekeenik, Europar bazkide eta ikusle gehien dituen taldeetako izatea eta Euroligako bazkide iraunkor bilakatzea. Non eta Gasteiz bezalako 'hiritxo' batean. Hain zuzen ere, Gasteiz marka txikia urte luzez ez zitzaion lagungarri egin Final Four hura ekartzeko (Euroligak bilatzen zituen Istanbul, Paris, Berlin, Madril edo

Bartzelona marka handiak). Azkenean, ekarri ekarri zuen, finala bai, baina turistak ez ziren Gasteiz txikian gelditu.

2010ean, Florentino Pérez bera saiatu zen Kerejeta fitxatzen Real Madrileko saskibaloitoki atalari astindu bat emateko. Hirutan esan omen zion ezetz, eta, gainera, 2016an berak egin zuen saskibaloitik futboleko jausi, notaritzan 2,4 milioi euro jarri, eta desagertzeko arriskuan zegoen Alaves salbatu zuen, probintziako bi talde nagusiak batuz eta haien jabe eginez. Hiru langile zituen Baskonia hura, gaur egun, mila bat dituen Alaves-Baskonia taldea da.

Pub bat, Gretel litxarrerria denak, bideo-jokoen merkatua, politikariek ondo moldatu inorekin ezkondu gabe, batzuetan arabartasunaren bandera hartuta... Alegia, alferrik ez hartu Kerejetaren izena ahotan. Ikusiko dugu, hala ere, zertan geratzen den Euneiz.

gehiago dira. EHUko unibertsitate-komunitatearen gehiengoarentzat, Eusko Jaurlaritzatik hezkuntza-negozio erdia ari da lehenesten, enpresa munduarekin lotuz, edo haren mendean jarritz; gainera, unibertsitate pribatu haien matrikula eta abarren kostuagatik, herritarrak jatorri sozio-ekonomikoaren arabera segregatzen dira. Ikasle, irakasle eta langile haien arabera, Euskal Unibertsitate Sistemaren dagokien dauden titulazioak bikoiztuko ditu Euneizek (Fisioterapiako Gradua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eta Masterra eta Eduki Digitalen Ekoizpen eta Ekintzaitzako Gradua), lehen aipatutako Jaurlaritzaren legeak eskaintzaren garapena modu harmonizatuan egin behar dela dioen arren. Zentzu horretan, Euneiz EHUrekin lehian sartuko da, ikasleak lortzeko zein administrazioetatik datozen baliabideak eskuratzeko.

Diru publikoaren pribatizazioak galdera gehiago ere badakar: nolako izango diren langileen lan-baldintzak, sektore pribatuaren ohikoak diren ordurako lanak eta behin-behinekotasuna, euskarak Euneizen izango duen pisua -EHUn bertan ere gaur gaurkoz graduak eta, are gutxiago, masterrak euskaraz osorik ikastea bermatuta ez dagoen-, eta abar.

LABek EHUko lan-egoeraren gainean eginiko salaketaren arabera, irakasle asko lanaldi partzialeko kontratuekin ari dira lanean, kanpoan beste lan bat izan gabe, hileko 400-700 euroko soldatekin bizitzen. Gainera, irakasle horiek ordaindutakoa baino lan zama handiago izaten dute. Irakaskuntza eta tutoretza baino ez zaizkie ordaintzen, nahiz eta kasu gehienetan beste ezinbesteko jardunak ere burutu. Ikertzaileen egoera ere kaskarra da: doktoretza aurreko ikertzaile askoren kasuan, EHUk zor dizkien atzerapenak oraindik ez zaizkie ordaindu, Ikertzaileen estatutu berriak ezarritako baldintza berriak direla eta. Ikerketa egiten hasten direnentzat lan baldintzak nahiko prekarioak dira eta langileen arteko diskriminazioa nabaria da: iraunkorrek ez diren irakasle eta ikertzaileei, esaterako, ukatu egiten zaie ikerketa seiurtekoak eskatzea, osagarri hauek jasotzeko meritua nahikoa izan arren, beren lankide iraunkorrek, ordea, haiekin batera eginiko ikerketa-jardunen lanak aurkezten dituzte ebaluatua izateko, baina aldi baterakoei ukatzen zaie aukera hori.



2017an "Arabako enbaxadore" izendatu zuen Komertzio Ganberak. BASKONIA

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren kasuan, 100 bat langile daude, urte luzez lanean aritu arren, lanpostuak finko egin gabe. Unibertsitateko komunitatearen gehiengoarentzat EHUko zuzendaritzak ez du Eusko Jaurlaritza presionatzen beharrezko finantzazioa lortzeko. Horregatik ere, Euneiz era horretan babestu eta diru publiko finantzatzea ez zaie justua iruditzen.

Ohartu gabe berandutu zaio Krisi. Kaka zaharra. Astelehen goiza eta du-txa hartu gabe joango da institutura. Pentsatzen geratu da. Euneiz ez ote da beste Montessori School zaputx bat izango? Ez ote da enegarren arabar kamusada izango? Adibidez, Iradier Arena erabileran anitez mozarrotutako zezen plaza kabriolet gehiegi erabili gabea; Final Four-a: Gasteiz saskibaloizaletz bete behar zuen asteburu hura, karpak, musika, iragarkiak han eta hemen, ikusmina...eta gasteiztarrak Bienvenido, Mister Marshall filmeko estrak bilakaturik, ustekabeak; edo Guinness liburuan sartzekoa zen munduko patata-tortillarik handiena Senén sukaldariari lurrera jausi zitzaionekoak –metafora hoberik al da?–.●



Euneizen aurka sindikatuen gehiengoak egindako mobilizazioa.



etb 1 Larunbatero,
13:30ean

etb 2 Igandero,
13:30ean

teknopolis.elhuyar.eus



eitb
elhuyar
ezagutuz aldatzea



BABESLEAK

“ ”

Kongresuan galtzen badute, berriro esango dute iruzurra egin dela

Eva Blanco

Eusko Alkartasunako idazkari nagusia

Eva Blanco (Amurrio, 1973) 2019an izendatu zuten EAko idazkari nagusi, Pello Urizarrek dimititu ondoren. Barne giro liskartsuan eraman behar izan du aurrera bere agintaldia. Baina arazoak atzeragotik datoz, gutxienez 2017ko kongresutik.

Familia barruko gatazkak dira mingarrienak eta EAn mina uki egin daiteke sektore batera edo bestera gerturatuta. Labankada artean hurbildu gara Eusko Legebiltzarrera –EH Bilduko legebiltzarkidea ere bada–, alderdiaren barruko bere ikuspegia ezagutu nahian.

 XABIER LETONA BITERI  DOS POR DOS

2021ean egin behar zen EAren kongresua. Uztailean sei hilabeteko epea beharko zela aipatu zenuen.

Azkenean, 2022ko otsailean egingo da? Datorren otsailaren azken astean edo martxoaren lehenean egingo da, eta ez nik esaten dudalako, Batzar Nazionalak hala adostu duelako baizik. Orain arte pandemiagatik atzeratu da, prozesuaren barruan gaude eta orain ponentziak landu behar dira. Garrantzitsuena da erabakitzea zein norabide politiko hartuko dugun, eta hori afiliatu guztien artean erabakiko dugu. Alderdiko zuzendaritza ere hautatuko dugu. Gure estatutuek agintzen duten bezala, oso prozesu parte-hartzailea eta gardena izango da. Horrik ez gara mugituko.

Sektore kritikoak eskatu dizue kongresua elkarrekin prestatzeko mahai bat, kongresuaren joko arauak adosteko, bestela ez direlako fio zuekin.

Hainbat gauza batera eskatzen dituzte, besteak beste, azken epaiari [2021eko uztailekoa] zuzendaritzak helegiterik ez jartzea eta kongresuaren joko arauak adostea. Azken honek ez du ez hanka ez buru, joko arauak gure araudian daudelako. Helegiteari buruz dena da oso bitxia: haiek sartu zioten lehen salaketa alderdiari eta galdu zuten; gero helegitea jarri zuten, epe guztiak agortuz prozesua luzatzeko eta ondoren, haiei interesatzen zaienean, eskatzen digute helegiterik ez aurkezteko.

Edozein kasutan epai horretan, haiek zartako handia jaso dute, epaiak esaten duelako, afiliatuen datu-basearen sarbidea erabili nahi zutela Maiorgaren alde jokatzeko. Epaiak, bai lehenengo instantzian bai bigarrenean, esaten du berme batzordeko kide batzuek zuzenbidearen aurka aritu zirela, eta suposatzen da, organo horrek zuzenbidea zaintzeko jokatu beharko lukeela.

Espedienteak bertan behera uzteko eskatzen dute, baina ez dira gureak, afiliatu batzuek jarritakoak dira eta zuzendaritzak ez du horiek bertan behera uzteko eskumenik. Horrez gain, zuzendaritzako kide diren Iker Ruiz de Eginio eta Mariano Alavaren aurka salaketak jarri zituzten zigor bidetik, baina horiei buruz ez dute ezer esaten. Hori oso larria da.



Eta, azkenik, proposamen hori hedabideetan egiten dute, baina adostasuna nahi denean diskrezioa eta isiltasuna erabiltzen dira lan egiteko. Horrela ez dute sinesgarritasunik. Haiek behartuta, nik ere hedabideen bidez erantzun nien. Egunero-egunero jarraitzen dute prentsan, erasoan oso era bortitzean, eta batez ere nire aurka.

Atzera egin eta azter ditzagun mesfidantzak. 2017ko kongresuan lehertu zen guztia. Zuek hamalau botoren aldearekin irabazi zenuten eta Pello Urizar atera zen idazkari nagusi...

Adi baina, ez dira afiliatuen hamalau boto, konpromisarioena baizik eta horietako bakoitzaren atzean hainbat boto daude.

Sektore kritikoak pentsatu zuen tartetikia zela eta mesfidantza zuten horien atzean agertzen ziren botoei buruz, eta horregatik eskatu zuten afiliatuen errolda ikusi ahal izatea. Dirudienez, eskaera hori onartu balitz, gero etorritako arazo asko saihestu zatekeen.

Hasteko, arazoa ez da hori. Saskibaloi partidu batean inork ez du zalantzan jartzen puntu batekin irabazi izana. Irabazi da eta kito, baina haiek ez zuten onartu galdu zutela eta harez geroztik etengabe jartzen dute hori zalantzan. Muina ez da afiliatuen datu-basea, horretan oso ongi jokatu dugu eta, Datuen Babeserako Legearen arabera hain zuzen, eta hala onartzen dute bi epaiek.

Sektore horretako koordinatzaileek badute eskubidea datu batzuk ezagutzeko, baina ez datu-base osoa eskuratzeko, legez hori ezinezkoa baita. Eta eskerrak ez genuela hori egin, epaiak orain arrazoi eman digu eta.

Nik ulertu izan diedanagatik, haiek ez dira fio hamalau boto-konpromisario horien atzean egon litekeenaz. Hori ikusi ahal dute?

Haiek nahi duten moduan jantzen dute arazoa, baina muinean da ez zutela onartu galtzea. Orain ere, kongresua irabazten badute, onartuko dute eta kito, dena amaituko da. Eta galtzen badugu, guk onartuko dugu. Baina haiek galtzen badute, berriro ere esango dute iruzurra izan dela. Uleretzen? Nik ere ez dut inoiz datu-basea ikusi.

Iragan uztaileko epaiaren zati bat aipatu duzu, datu-basearen kasuan zuei ematen dizue arrazoa, baina

primarioen auzian ez, eta esaten du ez zenutela prozedura egokia erabili, Maiorga Ramirezzen hautagaitza kaltetuz.

Primarioen araudia EAko afiliazioak egin, eztabaidatu, emendatu eta onartu zuen, gure araudi guztiak bezala. Epaiak dio talka dagoela guk ditugun bi araudiren artean eta primarioetako araudia berritu beharko genukeela antolakuntza araudiarekin talka egiten duelako. Nire izena edo izendapena ez dira epaian agertzen. Epaiak ez du esaten ni gaizki izendatuta nagola, hori ere esan dute eta. Ni ez nago primarioetako prozesu batean izendatuta, botere hutsune baten aurrean, ni Batzar Nazionalak izendatu ninduen. Maiorga Ramirezek izan zuen aukera prozesu hartan sartzeko, baina ez zuen nahi izan. Beraz, epaiak esaten du beste primario prozesu bat egin beharko litzatekeela, baina dagoeneko kongresu garaian gaudenez, horrek orain ez du zentzurik, kongresuan bertan zuzendaritza berria ere aukeratuko delako.



Alderdia benetan maite badugu, gure esku dagoen guztia egingo dugu bizirik mantentzeko”

Baina epaian hitz egiten da kontu zehatzagoez ere. Adibidez, esaten da Iparraldeko afiliatuen zerrenda oso berandu pasatu zitzaizola Ramirezzi -20 afiliatuetatik 5 lortu behar zituzten-, aurkeztu beharreko arratsaldean bertan, eta ez zuela behar zituen abalak lortzeko denborarik. Horrez gain, haiek 400 abal zituzten.

Afiliatuek hala erabakita, primarioetako araudiak zioen guk herrialde bakoitzetik bost abal lortu behar genituela. Honen atzeko filosofia hau da: EAko idazkari nagusi izateko, nazio guztian zehar izan behar duzu gutxiengo babesa. Araudiak guztira 50 abal eskatzen zizkidan eta nik, kautelaz, 60 aurkeztu nituen. Gero diote haiek 400 aurkeztu zituztela, nire 60ekin kontrajarriz. Nik bete nuen araua, haiek ez. Igeri txapelketa bat jarriko dut adibidez, 400 metroko lau estiloetako: laurak

bete behar dira eta ez 400 metro tximeleta estiloan. Hori gertatu zen.

Eta Ramirezzi zerrenda hori azken egunean emateaz?

Ni ez naiz hain xehetasun handietan sartuko. Epaiak askoz gauza gehiago esaten ditu, eta oso garrantzitsuak gainera.

Ba al du zentzurik zuen arteko desadostasun hauek epaitegietan atzera aurrera ibiltzea? Epaiak ez dizkizute konponduko zuen arteko arazoak.

Hala da bai, baina guk ez genuen erabaki epaitegietara joatea. Haiek erabaki dute alderdia eta afiliatuen erabakiak auzitara eramatea, eta luzatu ere hainbeste luzatu da haiek luzatu dutelako errekurtsos errekurtsos. Alderdia epaitegietan dago, ez da inoiz halakorik gertatu. Haiek uste dute kongresuan galdu zutena, Nazio Batzarrean etengabe galdu dutena, epaitegietan eta hedabideetan irabaziko dutela.

Kanpotik ez dakigu Nazio Batzarrean zer gertatzen den, baina haiek indarra erakusten duten datu esanguratsuak ere aurkeztu dituzte: aipatu 400 abalak, 600 afiliatu ezohiko kongresua eskatuz, hiru lurraldetako koordinatzaileak dituzte, oker ez banago Hegoaldeko lau hiriburuetakoak ere bai...

Bai, hiru herrialde ordezkatzeko dituzte, baina horrek ez du esan nahi herrialde horietako denak euren alde daudenik, eta gainera, ez dute kontraste hori egiten. Eurek kongresu bat eskatu zuten, orain badugu martxan eta espero dut inork ez jartzea eragozpenik hura egiteko.

EA EH Bildun nola egon behar den izango da kongresuko gai nagusietakoa. EH Bildu alderdien koalizio izatea aldarrikatzen dute kritikoek, baina oker ez banago hori ez da posible orain, 2017an EH Bilduk alderdien federazioa izatea erabaki zuelako.

Eta orduan Baluartean sinatu zenarekin ados ziren. Hamar urteko atzerapausoa planteatzen dute eta hori ezinezkoa da. Beti dago EH Bildun gure kokapena hobetzeko tartea, baina nik beste arazo bat ikusten dut: eurek ez dute sinetsi zer den EH Bildu. Eusko Alkartasuna EH Bildu da. Eta kontrakoa planteatzen dute, gu EH Bildutik kanpo egotea eta harekin beste harreman bat izatea. Hori da EH Bildu zer den ez ulertzea, eta hamar urteko atzerapausoa ematea.



Irabazten badute oso egoera berezia sortuko dela aurreikus liteke.

Euren erantzuna da, hori nik ezin dut erantzun.

Sortu EH Bildu fagozitatzen ari dela entzuten duzunean zer pentsatzen duzu?

EH Bildu alderdiak gara bai, baina baita beste pertsona asko ere, barruko alderdiekin identifikatzen ez dena. Hori da norabidea, pertsonak erakartzea. EH Bilduk gobernu bokazioa du, eta horretarako gero eta jende gehiagora zabaldu behar da. Ni oso identifikatua sentitzen naiz EH Bildu egiten ari den politikekin, eta egunero ikusten dut hori Eusko Legebiltzarrean: arlo sozioekonomikoan, justizia sozialaren inguruan, fiskalitatean, etxebizitza politikan, gazteekin... Beste gauza bat da aurpegiez hitz egiten badugu. Baina zer, EAren garrantzia neurtuko dugu publikoki azaltzen diren pertsonen arabera? EAK bizi behar du eta gure aurpegiak agertu behar dira, baina garrantzitsuena EH Bildu egiten ditugun politikak dira, proiektu politikoa. Kritikoei ez diet entzuten egunero politikak horiez hitz egiten, ez dute proposamen politikorik mahaigaineratu.

Edozein modutan, EH Bildu indartzen bada, barruko alderdiak denborarekin ahuldu egingo dira. Logikak hori esaten du.

EH Bildu alderdiak oso garrantzitsuak dira, aniztasun hori irudikatu behar da etengabe, baina haratago joan behar da, bestela biribilgune horretatik ez gara aterako. Oreka mantendu behar da, baina EH Bildu handitu ere egin behar da, herri eta nazio hau aldatu nahi dugulako. Beraz, zenbat eta jende gehiago hobeto. EH Bildu oposizioko lehen indarra da EAEn. Gure helburua gobernu indarra izatea da, eta horretan jarriko dugu indarra.

EAK izan ditu hainbat zatiketa 35 urteko historian. Kongresura oso posizio desberdinetatik iritsiko zarete alde biak eta elkarrekin aurrera egiteak ez dirudi samurra. Ematen al dizu beldurrik EAKo azken idazkari nagusia izatea?

Pello Urizarri galdera berdina egin zioten 2009an postua hartu berritan. Ez dut uste azkena izango naizenik, eta benetan alderdi hau maite badugu, gure esku dagoen guztia egingo dugu bizirik mantentzeko. Haize freskoa sartu behar da hau guztia konpontzeko. Hainbeste ika-mikarekin gure posizioa ahula da alderdi gisa eta nire asmoa da erakustea alderdia ez dela hedabideetan agertzen ari dena. Historia dugu eta hori buruan izan behar dugu, baina etorkizunera begiratuta.

Historia aipatuta, alde bakoitzak izango dituzue zuen historikoak,

baina kritikoen alde agertu dira Garaikoetxea, Larreina, Ibarrondo... zaila da irudikatzea pertsona horiek EAri eraso egin nahi diotela.

Lehen ere esan dut, arazoa ez da hain politikoa, pertsonalista baizik. Errespetu osoa diot Garaikoetxeari, bere garaian egin zuenari eta alderdian suposatzen duenari, baina alde batean egoteak ez du laguntzen arazoa konpontzen. Bi aldeen gainetik egon beharko luke, alderdia josten laguntzeko.

Kataluniatik etorri berri zarete [Diadatik] eta hemen ere autogobernuaren gaia pil-pilean da. Zein da bidea, han eta hemen? Katalunian orain arte erabili duten konfrontazioarena, orain praktikatzen ari den Madrilekiko elkarriketarena, edo biak batera?

Urkulluk atzo [eztabaida orokorreko osoko bilkuran] 1839aren aurreko egoerara itzultzea proposatu zuen, baina ez da ulertzen zergatik proposatzen duen XIX. menderako bidaia hori, hemen badugunean Legebiltzarreko autogobernu ponentzian adostu ziren estatus berrirako oinarri eta printzipioen inguruan akordio zabala. EH Bilduk eta EAJk sinatu genuen hura eta bien artean gehiengoa dugu. Gu hor gaude, Urkullu ez dakigu non dagoen. Zergatik Urkulluk ez dio heltzen akordio horri? Bada ausardiak jokatzeko ordua. Eta bidea? Akordioa, eztabaida eta konpromisoa. ●

Punk&Roll-a, talidomidak kaltetuen isilunea urratzeko

Gosaritarako kafea eta tostadak egitea, ilea orraztea, hortzak garbitzea eta makilatzea. Egunari ekiteko eginkizun sinpleak iruditu ahal zaizkionak bati, ez dira denontzat munta berekoak. Aniztasun funtzionala daukan norbaiten azalean jarriz gero konplexutasunean irabazten dute, nahiz eta hala ez dirudien Alejandro Díaz, Rafael Basterrechea, Ana Castillo, Manuel Bioque eta Mariano Garmendia eguneroko eginkizunen aurrean nola moldatzen diren ikusita. Urteen poderioz garatutako trebezia, aise apaintzen dira eta prestatzen dute gosaria *Lágrimas de Arena* abestiaren bideoklipean. Alabaina, gauzak ez dira izan ziratekeenak bezain errazak izan beren kasuan, farmako batek eragindako malformazioekin jaio izanak dena zailxeago bilakatu baitie. Talidomidak kaltetutako milaka pertsonen artean bat gehiago dira Díaz, Basterrechea, Castillo, Bioque eta Garmendia, eta kaltetutako kolektibo handiaren parte izanik ere, isildutako historia da eurenena. Bizi duten errealitatea itzaletik argitara eraman eta gaur gaurkoz indemnitzatuak izan ez direla salatzeko, elkarlanean aritu dira Azken Hatsa musika taldea eta AVITE Talidomidaren Biktimen Elkarte. Eraitza: *Lágrimas de Arena* bideoklipa.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

1 957an komertzializatu zen talidomida, Grünenthal GmbH farmazeutika alemaniarrak sortutako farmakoa. Beronen sortzaileek segurutzat aurkeztu arren, hasieratik sortu zituen mesfidantzak, eta arrazoi horregatik ez zen merkatura salto egitera iritsi AEBetan adibidez; Frances Oldham Kelsey doktoreak uko egin zion talidomida merkaturatzeari, eta beronen azterketa gehiago eskatu zituen. Beste herrialde batzuek bide beretik joko zuten, Frantziak kasu. 50 bat herrialdetan, ordea, lasaigarri gisa

edota haurdunaldiko goragaleen aurkako erremedio modura errezetatua izan zen, harik eta erretiratu zuten arte. 1959a orduko, beronen albo-kalteak hasi zitzaizkion arreta ematen hainbat adituri, Widukind Lenz pediatriari eta Klaus Knapp haur-erradiologoari kasu. Lenz eta Knapp malformazioekin jaiotzen ari ziren haurren kasuak ikertzen hasi ziren, eta horien atzean talidomida zegoela frogatu zuten. Ondorioak *Thalidomide embryopathy (Talidomidagatiko enbriopatia)* ikerketan plazaratu zituzten, 1962an. Urte horretan

bertan erretiratu zen talidomida merkaturatik Alemanian, eta atzetik segiko zioten gainontzeko herrialdeek, nahiz eta farmakoa zirkulaziotik desagertu arte denbora pasako zen. Espainiako Estatuan erretiratu zen farmakoa beranduen, 1985ean.

Eskuragarri egondako tartean farmakoak egindako kaltea ez da edonolako: *Thalidomide, historical and ethical contexts (Talidomida, testuinguru historikoa eta etikoa)* ikerketa artikuluan azpimarratzen denez, "talidomidaren ondorioak pandemia



AVITEko eta Azken
Hatsako kideak bideoklipa
jendaurrean aurkezten.
LIERNI CAMPOS

dimentsioa izatera heldu ziren". Rafael Basterrechea AVITEko kideak hainbat elkarrizketetan emandako datuaren arabera, kalkulatzeko da 50.000 pertsona kaltetu dituela talidomidak, gehiengoaren heriotza eraginez. Gertuan baditugu hainbat kasu, gaur gaurkoz egindako kaltearen aitortzarik eta indemnizaziorik jaso ez dutenak. Beste herrialdeetan ez bezala, Espainiako Estatuan ez konpainia farmazeutikoa ez gobernua ez baita gertatutakoaz kargutu. Errealitatearen gordina eta bidegabekeria bistara

ekarri nahi izan dituzte Azken Hatsa taldeak eta AVITE elkarteak.

Ekimenak interesa pizturik eta gehiago jakiteko gogoz, Azken Hatsa arabar punk&roll taldearen atea izan da lehenbiziko jo duguna. Esku artean darabiltenak sortzen dien motibazioa nabari zaie ahotsean Iosu eta Julen taldekideei azalpenak eman bitartean, eta beraien eskutik ezagutu ditugu proiektuarengainekoxehetasunguztiak. Azaldutakoaren arabera, talidomidak kaltetutakoaren errealitatearekiko sensibilizazioa losuri zor diote, haren

idea bat baitu sorburu AVITerekin batera martxan jarritako elkarlanak. Farmakoak kaltetutako bere osabaren eta beste hainbeste pertsonaren errealitatea bistaratu nahi zuen hark, eta horretarako bere tresna musika izanik, gaiaz abesti bat egin nahi zuela jakinarazi zien taldekideei. Esan eta egin, abestia konposatzeari ekin zioten, eta behin amaitutakoan, argi ikusi zuten hura ez zela nolanhiko abestia. Disko batean eta beste hainbat abestiren artean oharkabean pasako zela iritzirik, *Lágrimas de*



Arenarekin zerbeit “serioagoa” egin behar zutela iruditu zitzairen. “Orduan Marianorekin [Garmendia] kontaktatu genuen, Iosuren osabarekin; AVITEko kide da bera, eta galdegin genion ea elkarteak zerbeit egin nahiko lukeen abestiarekin”.

BERANDUTU DEN ERREPARAZIOA

Azken Hatsaren proposamena gogo onez onartu zuten AVITEko kideek. Talidomidak kaltetutako en realitateaz ezagutzera emateko aukera paregabea begitandu zitzaizela diosku Garmendiak. Inork baino hobeto daki berak gaiari ikusgaitasuna ematearen garrantzia, bai kalte-ordainak eta erreparazioa exijitzeko, bai kaltetua izan denak egin diotenaren kontzientzia har dezan. Izan ere, gaiak plaza publikoa hartzea lortu zuen istant apur horietako batek erraztu zion berari lotura egitea jaiotzetiko bere malformazioen eta talidomidaren eraginaren artean. Hala dio: “Epaiketa bat egon zen 2012-2013 bueltan, gaia prentsan azaldu zen eta horri buruz entzuten hasi nintzen, eta konturatu nintzen han zegoen jendea nire oso antzerakoa zela. Orduan kontaktuan jarri nintzen AVITE elkartearekin eta jakin gabe kaltetua nintzen ala ez, bazkide egin nintzen”.

AVITEko kide bilakatzearekin batera hasi zen aztarnak biltzen. Hainbat proba pasa zituen, eta perituek esan zioten bazitekeela bera ere talidomidak kaltetua izatea. Amarengana jotzea izan zen beste urrats esanguratsu bat. Berataz haurdun zela medikamenturik hartu ote zuen galdegitean, zalantzarako tartea nabarmen murriztu zen. “Baietz erantzun zidan, haurdunaldi hasiera nahiko gogorra izan zuela eta pilula batzuk errezetatu zizkiotela”. 2018an egingako probek uxatuko zioten behin

betikoz duda: “2020ko martxoan eman zidaten emaitza eta esan zidaten baietz, talidomidaren ondorio zirela nire malformazioak”.

Ofizialki talidomidak kaltetua izateko probak dira Garmendiak pasatakoak, eta printzipioz emaitza positiboa jaso dutenak indemnitzatu beharko lituzke Espainiako Gobernuak, horretarako diru-partida onartu baitzuen 2018ko aurrekontuetan – PSOEn kontrako bozkarekin eta EAJren abstentzioarekin-. Alabaina, kaltetutzat jotakoek ez dute sosik ikusi oraindik –“Gobernuak Errege Dekretu Legea egin dezan zain gaude indemnitzazioa jasotzen hasteko”, azaldu du Garmendiak– eta espero baino gutxiago dira kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutenak. Izan ere, AVITEko kideen sumindurarako, Espainiako Osasun Ministerioaren Komite Zientifiko-Medikoak ateratako ondorioek proba medikoak egin dituzten 584 pertsonen artetik ehuneko murrizari aitortu die talidomidarekin lotura; 511 probaren emaitzak eskutan, ebatzi zuen %80a ez zela talidomidak kaltetua. Emaitzak ezagutu aurretik, eta proben prozedurari irregularra iritzirik, Ignacio Martínez García

Komite
Zientifiko-Medikoak
proba medikoak egin
dituzten 584 pertsonen
artetik ehuneko
murrizari aitortu die
talidomidarekin lotura

AVITEko abokatuak hala adierazi zion *El Saltori Las víctimas de la talidomida en España se sienten estafadas por el Estado* (Talidomidaren biktimek Estatuak iruzur egin diela sentitzen dute) erreportajea: “Susmoa dugu 2010ean bezala jardun nahi dutela, eta dagoen diru kopuruaren arabera aitortu kaltea jendeari, alderantziz egin beharrean”.

1006/2010 Errege Dekretuari egiten dio erreferentzia Martínezek, zeinaren bidez, bertan jasotzen ziren baldintzak betetzen zituzten 24 pertsona besterik ez ziren indemnitzatu. Kaltetuen osotasunaren erreparazioa eta indemnizazioa bilatuz, bi urteren buruan bide juridikoa abiatu zuen AVITEk, Grünenthalen aurka demanda aurkeztuz. Aurkeztutako demandaren ondotik abiatutako epaiketak izandako oihartzun mediatikoak emango zion ezagutzera Garmendiari talidomidaren auzia. 2013an, lehen instantziak farmazeutika erruduntzat jo eta kalte-ordainak ordaintzera derrigortu zuen. Alabaina, akusatuak Madrilgo Probintzia Auzitegian helegitea jarri ostean, honek arrazoia eman zion kasua preskribatuta zegoela argudiatuz, eta hala berretsi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak. Egoera horretan kaltetuek jarritako babes-errekurtsoak atzera bota zituzten Espainiako Auzitegi Konstituzionalak eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak. Ez Grünenthalek ez inongo auzitegi ez du ukatzen egindako kaltea, baina preskribatua dagoenaren argudioarekin, erantzukizunez libratu dituzte erantzuleak.

Bide judiziala agortuta ekin zioten bide politikoari, estatuari ere erantzule iritzirik. Momentuotan egoera zertan den azaldu digu Garmendiak: “AVITEk helegite bat jarria dio gobernuari, funtzioen utzieragatik, errege dekretua ez duelako atera hiru urtetan. Beraz momentuotan bi balizko bide daude: edo gobernuak Errege Lege Dekretua ateratzen du, edo epaileek esan beharko dute zerbait”.

Gobernuaren posturaz gordin mintzo zen *El Salton* Komite Zientifiko-Medikoaren parte izateari uko egin zion mediku Francisco Javier García Mora: “Kontu hau konpontzeko borondaterik ez dago eta inoiz ez da egon, zeren eskatzen du kalte-ordainen kapitulu esanguratsu bati atea irekitzea. Espainian tabua izan da diagnostikoa

“Gobernuak Errege Dekretu Legea egin dezan zain gaude indemnizazioa jasotzen hasteko”

Mariano Garmendia

NAZIEN ASMAKIZUNA?

Lágrimas de Arena bideoklipa irekitzen duen irudian esvastika bat ageri da, eta baliteke xehetasunak ikuslea harritzea. Gaia gertuko ez duenak, lehen kolpean nekez egingo baitu talidomidaren eta nazismoaren artean loturarik. Alabaina, farmakoaren jatorria ikertzen aritutako zenbaitek ulertzeraz eman dute balitekeela talidomida nazien asmakizun izatea. Ingalaterrako The Thalidomide Trust elkarteko zuzendari izandako Martin Johnsonek eta Carlos de Nápolik bat datozen irakurketak egin dituzte, iradokiz, besteak beste, talidomida II. Mundu Gerran sortua izan zitekeela, gas neurotoxikoen antidotoa bilatzeko esperimentuetan, eta balitekeela kontzentrazio esparruetan farmakoaren probak gauzatu izana. Biek Otto Ambros nazia jo dute talidomidaren balizko sortzailetzat; Ambrosek Nurembergeko prozesuan zigortua izan eta urte batzuetara Grünenthalen egingo zuen lan.

Mariano Garmendiak Goierriko Hitzari eskainitako elkarrizketa batean ondokoa adierazi zuen: “Talidomidaren probak kontzentrazio esparruetan egin zituzten. Franco eta Hitler oso ongi konpontzen ziren, horregatik, susmoa dago Espainia ere probaleku izan zela”.

60 urtean, eta hala izaten segitzen du. Kasuak diagnostikatu eta indemnitzatu beharreko pertsonak identifikatzeko interesik ez da existitzen gobernuaren partetik. Hobe da itxarotea eta hil daitezen uztea”.

ISILTASUNA HAUSTERA DATORREN KANTUA

Gobernuak edo epaileek zer esango zain, ez atzera ez aurrerako egoera horretan trabaturik zeudela heldu zitzaion AVITEko kideei Azken Hatsaren proposamena, eta ez bat ez bi, buru-belarri jarri ziren lanean. Esku artean zeukaten bideoklipa talidomidak kaltetutakoen errealitatea lau haizeetara zabaltzeko bozgorailua zela jakinik, aukera probestu eta mezua ahalik ozenen zabal zedin bermatu nahi izan dute; helburu horrekin ekin zioten musikaren esparruko izen esanguratsuen kolaborazioak bilatzeari. Gonbita onartu zuten Aiora Renteriak (Zea Mays), Koldo Soretetik (Niña Coyote eta Chico Tornado), Fernando Madinak (Reincidentes) eta Enrique Villarreal *El Drogas*-ek, eta AVITEko eta Azken Hatsako lagunekin batera aritu dira urte luzetako isilunea urratzeko kantuan.

Urtebeteko lanaren emaitza irailaren 10ean aurkeztu zuten jendaurrean, Legorretako Herri Antzokian, eta biharamunean jarri zuten sarean ikusgai. Bideoklipa gaia sozializatzeraz bidean errefortzu izatea gura dute egileek. “Atentzioa eman eta ‘Eh! Hemen gaude oraindik eta asunto hau oraindik konpontzeaz dago’ esateko modu bat da”, dio Garmendiak. Azken Hatsakoek, beren aldetik, gaiari eta AVITEren borrokari ikusgaitasuna eta aitortza eman nahia azaleratu dute, eta aitortu beharrekoen zerrendari gehitu diote talidomidak kaltetutako haurrez erditu ziren amen mina: “Jende asko hil da talidomidak eragin dien kaltearen mina aitortu gabe, ama asko tarteko, eta amen kasuan, kulpa gainean edukita joan dira. Haien errua izan balitz bezala beren semea edo alaba horrela jaio izana. Eta horren karga emozionalak, karga psikologikoak, karga fisikoak... sekulakoak izan dira”. ●



BIDEOKLIPA IKUSTEKO ESKANEATU QR KODEA.



“ ”

Gizakiok agian ausartegiak gara diogunean ez dagoela hizkuntzarik beste inon

Beatriz Fernández
hizkuntzalaria

Hizkuntza gogoan (Erein, 2021) liburua idatzi du Beatriz Fernándezek (Portugalete, 1964). Ez du lehenengoa, dibulgazioa eta ikerketa lotuta hizkuntzari buruz idazten duen hirugarren argitalpena da. Ikasgelan ikasleekin lantzen dituen galderak jaso ditu liburuan, edonork ulertzeko moduan. Galdera kitzikagarriak: Gizakiok al gara hizketarako gai garen bakarrak? Xibarta baleek beti kantu bera kantatzen al dute? Zer da hizkuntza?

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  HODEI TORRES

Hizkuntzei behar bezala ez diegula begiratzeko diozu, azalari bai, baina mamiari ez. Zer esan nahi duzu?

Euskaldunon zalantza gehienak dira hizkuntza arautuaren ingurukoak, hau da, zer den txarto esanda dagoena eta zer den ondo esanda dagoena; euskara batuaren, estandarren, hizkera jaso, dotore eta formalaren ingurukoak. Hizkuntzari buruzko galdera nagusietakoak horiek dira. Eskolan bertan antzematen da. Ikasleei hizkuntzalaritza zer den esplikatzeko diezu lehen mailan eta harritu egiten dira, liburuan agertzen diren gaiak hizkuntzarekin zerikusia dutenik ez dakite, arrastorik ere ez. Ez dakite afasia zer den, zer den pidgin bat, kreoleratzea, ez dakite euskara bezala beste hizkuntza batzuk ere bakartuak direla genetikoki. Gai horiek guztiek airean egon beharko luketela uste dut.

Gramatika arautua, Euskaltzaindia, hizkerak... alde batera utzita, falta da ikuspuntu biologikoa. Euskaldunak gara eta harro

gaude, euskara eta kito, baina gizakiak gara. Euskara zer den ulertzeko bidea duzu hizkuntza zer den ulertzea. Hizkuntza, gaitasun gisa. Gaitasun horrek aukera ematen dizu euskalduna edo katalana izateko edo gaelikoz hitz egiteko. Euskaldunoi gertatzen zaizkigun gauza asko eta asko gertatzen zaizkie beste hainbat hizkuntzatarako hitzunei, eta iruditzen zaigu ezetz, geu gara munduan bakarrak. Hori hurbilpen okerra da. Adibidez, afasiko batek izango ditu zantzu batzuk euskaraz baino agertzen ez direnak, baina Broccaren afasia [hizkuntzaren arlo espresiboen trastornoa] duen hiztunak dituen zantzuak euskaraz eta beste hainbat hizkuntzatan berak dira.

Hankamotz gabiltza orduan eremu horretan.

Ez dakit hankamotz den hitza... hizkuntzari buruz, gure kasuan euskarari buruz, jendeak daukan kezkarakin eta jakin-min handiarekin alderatuta badaukagu zer ika-

sia. Zakilixutek ia egunero hizkuntzarekin zerikusia duten hainbat gai jartzen ditu mahai gainean. Hori posible da, hain zuzen, hizkuntzaz ardura duen herri batean. Oso kezka mugatua da, mugatzen da gure hizkeretara, gure zokokerietara, gure herrian esaten den hitz honetara zeina ez den esaten beste herrietan, eta horregatik harro gaude. Hizkuntzari dagokionez, ezereza da. Hondar ale bat da.

Hizkuntza zailen eta errazen mitoa hausten saiatu zara.

Ez naiz lehena. Esate baterako Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalaria madrildarrak egin du ariketa, liburu bat dauka gai horri lotuta.

Ni orain katalana ikasten ari naiz. Badut garunean beste hizkuntza erromantze bat [gaztelania] eta horrek ikaragarri laguntzen dit ikasketa. Beno, oztopo ere bihur daiteke bien artean dagoen gertutasunagatik: *trabajar* gaztelaniaz eta kata-



lanez *treballar*. Hizkuntza batzuen artean antzekotasun tipologikoak egon daitezke. Ez dira beharbada azaleko antzekotasunak, baina mikroskopiaarekin begiratzen hasten zarenean ikusten duzu antzekotasun handiak daudela bien artean. Katalanaren, gaztelaniaren eta frantsesaren artean antzekotasunak egon daitezke, familia bereko hizkuntzak diren heinean –familia bereko pertsonen artean antzekotasunak egon daitezkeen bezala, nahiz eta ez halabeharrez–. Orduan, katalana ikasten hasten bazara frantsesa edo italiara jakinda, errazagoa egingo zaizu ikastea, adibidez, inuita izanda baino. Inuitek beste familia linguistiko bat dutelako, urrutiagokoa, bestelako ezaugarriak dituena. Beste alde batetik, gerta daiteke bi hizkuntza familia berekoak ez izatea eta, hortaz, ahaidetasunik ez izatea, baina aldi berean ezaugarri jakinetan bat egitea. Adibidez, euskaldun batek japoniera ikasten badu berehala ikusiko du japonieraz, kontxo, gauzak antzera ordenatzen direla, hots, lehenik subjektua, ondoren osagarria eta azkenik aditza, euskaraz egiten dugun bezala. Alde horretatik begira, euskara japonieraren antzekoagoa da katalanarena baino, katalanez subjektua lehenik jarri arren, ondoren aditza jartzen delako eta azkenik osagarria.

Hori alde batera utzita, esatea hizkuntza bat zailagoa edo errazagoa den? 60ko hamarkadako alaba izanik ere, ingelesa ikasten nuen ikastolan, baina ostras!, hasi zaitetz ingelesaren preposizioak ikasten!

Hizkuntza errazak eta zailak daudela nahita elikatutako mitoa da?

Noski. Intentzionalitate politikoa egon badago, euskara ez dezagun ikasi. Baina esango nuke gure aldetik ere, euskaldunok,

mitoa elikatu dugula: gu desberdinak gara, Europako lehen hizkuntza, ez da indoeuroparra... Etxekalte, noski. Zeren era berean esaten da: zaila da, ezin da ikasi... Munduan zehar hizkuntzalariak ezagutzen ditut eta ezagutu ditut newyorktarrak euskaraz dakitenak, txekiarrek, poloniarrek. Ikasi ezin daitekeenik ez da egia. Hainbat hizkuntza-tako hiztunek erakusten dute hori eta ez naiz ari bakarrik hizkuntzalariez. Ondarroan wolofera hiztunek euskara ikasi dute eta esango didazu zer zerikusi daukaten woloferek eta euskarak.



Euskaldunok, mitoa elikatu dugu: desberdinak gara, Europako lehen hizkuntza, ez da indoeuroparra... Etxekalte, noski”

Ezin daiteke esan ikasi ezin daitekeenik. Ez zaigu komeni euskaldunoi hori esatea, gure buruaren kontra ari gara. Edozein hizkuntza ikas daiteke, kostako zaizu gehiago edo gutxiago. Ahizparik ez edukitzea, gure hizkuntzak eragozpen hori izan dezake, baina ikas daiteke. Gure morfologia itzela iruditzen zaigu, baina has zaitetz ikasten navajoa, ea hor ez dagoen zailtasunik. Gurea ez da ez zailagoa ez errazagoa, munduko beste hizkuntza bat baino ez da.

Besterik gabe, hizkuntza bat gehiago.

Ikuspuntu objektibo batetik niretzat bai, baina bihotzean daramadan hizkuntza da. Hala ere, egia da euskarari bildu direla tipologikoki bereziak diren hainbat ezaugarri. Kanpoko hizkuntzalarien artean euskarak sortzen du beste inongo hizkuntzak sortzen ez duen lilura. Esaten diozu norbaiti euskarari aditua zarela eta galderak egitera etortzen zaizu kafearen bueltan. Dirudienez beraz, euskara ez da begi urdina bakarrik, begi urdina gehi hau eta beste. Beste inon aurkitzen ez diren ezaugarri berezi batzuk pilatzen dira euskararen zakuan. Beharbada gauza bera gerta daiteke beste hizkuntza batean, ezaugarri berezi batzuk izan ditzake batera, baina agian ez horren ezaugarri exotikoak. Guk atzekoz aurrera jartzen ditugu gauzak, hizkuntza ergatibo bat daukagu, nor-nori-nork bezalako egiturak ditugu... Horiek denak pilatzen dituzunean, azkenean esaten duzu, ostra! begira zelako lore bitxia daukagun hemen.

Ez dakit nola moldatuko garen galdera honetan *spoilerrik* ez egiteko. Gu gara hizkuntza duen animalia bakarra?

Konturatzen naiz bilakaera bat eduki dudala. Ikuspuntu antropozentristagoa neukan lehenago orain daukadana baino. 18 urteko 80 bat ikasle edukitzen ditut urtero eta galderak datozkit handik eta hemendik. Beti esan izan diet: giza hizkuntza bakarra da, ez duzue beste halakorik aurkituko bila hasten bazarete ere, giza hizkuntzaren ezaugarriak hauek dira eta ezaugarri guztien zakua hartzen baldin baduzue nekez aurkituko duzue halakorik. Zer gertatzen da ikuspuntu hori hartzen duzunean, nik urtetan hartu dudana moduan? Aitormena egingo dut, Hertzainak-ek aspaldiko kantu zoragarri hartan bezala. Ikuspuntu hori hartzen baldin baduzu, gero ez daukazu giza hizkuntza zerekin konparatu. Esaten baldin baduzu, “ni bezalakorik ez dago, beraz alferrik ibiliko zarete ni naizen honen antzeko zerbaiten bila”. Horrek asko murrizten du ikerkuntzaren eremua.

Ez naiz aditua gai honetan, baina egin dezagun gauza bat. Ezaugarri guztiak jartzen baldin badituzu batera ez duzu aurkituko halakorik, ados, arrazoi, baina har dezagun ezaugarri bat eta bila dezagun beste lekuren batean, eta aurkituko dugu. Bilatu beste ezaugarri bat, eta aurkituko dugu, eta beste bat, eta beste bat.

Giza hizkuntzaz eta komunikazio sistemez hitz egiten da, neuk egin dut eskolak ematerakoan, gainerako animaliek dutena hizkuntza bezalakoa ez balitz bezala.

Horren bereziak bagara gizakiok, zer-tan dago gure berezitasuna? Kostako zaitzu geurea baino ez den ezaugarriak aurkitzea.

Kontatu berri duzuna azaltzeko adibideak jaso dituzu liburuan, xibarta baleen komunikazio sistema, txorien kantua...

Txorien kantua gauza bat da eta gure jarduna beste bat, baina ikusi kantuok aztertzen dituzten adituak zer egin duten, aztertu txorien nolabaiteko diskurtsoak. Ikusiko duzu nola dagoen egituratuta, nola hierarkia bat daukaten atalek eta unitateek, *Lego*-ko ataltxoak balira bezala. Hau da, kantuan agertzen diren ezaugarri batzuk gurean ere badaude.

Iruditzen zait, beharbada, ausartegiak garelako diogunean, ezetz, ez dagoela hizkuntzarik beste inon. Denborak aurrera egin ahala gero eta gauza gehiago dakizkigu. Nik esango nuke: emaiozu denbora zientziari eta beharbada kalparra ateratzen genuenok hobe dugu kalparra apur bat apaltzen hastea, badaezpada.

Bihotz elebidunetz aritu zara, hau da, hizkuntzaren eta emozioen arteko harremanez.

Lehen esan dizut hizkuntza denak direla antzeko edo gauza bera, nik hori aldarrikatuko nuke, hori da nire ustea. Baina noski, ez da gauza bera norberak hizkuntzekin dituen bizipenak. Pertsona batek esaten badizu "*maite zaitut*" edo "*te quiero*" zure oroimenak garraiatuko dituen oroitzapenak hizkuntzarekin batera garraiatuko dira. Hizkuntzek ez gaituzte berdin hunkitzen.


Nelson Mandelaren esaldi gogoangarriak zerikusia dauka honekin: pertsona bati bere hizkuntzan hitz egiten badiozu hori bere bihotzera joango da eta dakien hizkuntza batean hitz egiten badiozu

hori bere burura joango da. Nahiz eta bihotza buruan dagoen, garunean, ez da gauza bera, ez zaitu berdin hunkitzen. Mandelaren esanean uste bat dago, baina ikertzaileek ere erakusten dizute benetan ez zaituela modu berean hunkitzen ama hizkuntzan esaten dizutenak eta gerora ikasten dutun hizkuntzan esandakoak.

Liburuan bereziki aipatzen dira zer-nolako erreakzioak ditugun hiztunok tabu hitzekin, madarikazioekin, alegia. Oihartzun soziala eta emozionala dute, diskurtso neutro samar batetik ateratzen dira. Tabu hitzak eta errietak hainbat hizkuntzatan erabilia ikertu dituzte pertsonen erreakzioak. Zer ikusi dute? Ikusi dute erantzun emozionala ez dela bera hizkuntza guztietan, zein hizkuntza darabilzun erreakzio emozionala diferentia sortzen du. Hizkuntzalariek iker eremua dute hor.

Jatorrizko hizkuntzan desberdin erreakzionatzen dugula erakutsi dute ikertzaileek. Zu, ordea, bihotz elebidunak izan ditzakegula ondorioztatzen iritsi zara.

Ez dizkidate laborategian probak egin, ez naiz ikertzaileentzat datu emaile izan, baina benetan sentitzen dut urteak beharko lirakeela jakiteko nik bezalako hiztunek zein erreakzio emozionala daukaten [jatorrizko hizkuntza gaztelania du eta euskara umetan ikasi zuen ikastolan]. Seguru nago modu berean eragiten nauela hizkuntza batek zein besteak. Arrazoia izan daiteke euskara nire ama hizkuntza ez izan arren oso umetatik dakidan hizkuntza dela. An-



EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko ikertzailea eta irakaslea da. Sintaxilaria. *Hizkuntza gogoan* liburua baino lehen beste bi argitaratu zituen Ereinekin, beti ere dibulgazioari lotuak: *Euskera para castellanohablantes* eta *Euskara eta hizkuntzari buruz, hizketan semearekin*.

dereño Agurtzane bermeotarrak umetan errietan euskaraz egiten zidan, genio biziko andereñoa zen! Hortik aparte, euskarekin izan dudana harreman emozionala ikastolatik aurrerakoa izan da, beste euskal hiztun batzuen kasuan ez bezala, zeinak izan zitezkeen sortzez euskaldunak, baina euskararekin hautsi duten.

Ni bezalako hiztunak arakatuko balituzte, zein ondorioz iritsiko lirakeke? Bigarren hizkuntzarekin, euskararekin, harreman estua izan dut. *Lost in translation* liburuaren idazleak, Eva Hoffmanek [jatorrizko hizkuntza poloniera zuen], zera adierazten zuen: beretzat *ibai* hitzak ingelesez ez zeukan polonieraz zuen konnotaziorik, ez zuen oihartzun emozionala bera. Baina halako batean, AEBetan urte asko daramatzala literatura ingelesez irakasten, konturatzen da ingelesak hunkitzen duela polonierak hunkitzen duen beste!

Horrek esan nahi du, halako batean gerta daitekeela, metaforikoki hitz eginez noski, bihotz elebiduna bihurtzea. Nik uste dut badudala. ●

1. KANPORAKETA DURANGO

Urriaren 3an, domeka,
17:00etan, San Agustin kulturgunean

Ander Elortegi Garatea, Asier Galarza Garai,
Beñat Bilbao Landa, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia,
Inazio Vidal Gurrutxaga eta Iruri Altzerreka Martinez.

www.bertsosale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrearak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI TXAPELKETA 2021



Antolatzailea

Babesleak.

Laguntzailea



Gaur hautagaiak, etzi sariak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Atzo esan dit lagun batek: "Iraila joan zaigu, berehala ordu aldaketa, eta horrekin batera jada Gabonetan sartzen gara". Ez ditut denbora salto azkarregi horiek atsegin. Etzikoan ere pixka bat pentsatzen duten horietakoa naiz, baina unean unekoa eta tokian tokikoa bizitzen ahalegintzen naiz. Urte amaieran kokatu nauen kidearen komentarioak, ordea, nahigabeen eraman dit burua Argia Sarietara. Gainean ditugu.

Ez dago ARGIAko lantaldekoa izan beharrik sarituen proposamenak egiteko. Azken urteetan irekia da prozesuaren fase hori eta oraintxe da garaia. Urrian zehar jaso nahi dira Argia Jendearen proposamenak. Euskarazko kazaritza eta komunikazioan nabarmen-tzen diren lanak saritzen dira urtero, eta ez dira gutxi irizpide horren barruan saritzeko egokiak izan daitezkeen proiektuak edo pertsonak. Geroz eta begi gehiagok begiratu, orduan eta aukera gehiago egongo dira mahai gainean. ARGIAko lantaldean ere botatzen dira kandidatuetan, baina kanpotik iritsitakoak ere oso kontuan hartzen dira hautaketa prozesuan. Batek baino gehiagok proposamen bera bidaltzea ere seinale izaten da. Batzuetan ezagutu gabeko proiektuak ere jaso izan dituzte, edo bururatu gabeak, eta sorpresa onak izaten dira.

Bost sari izaten dira urtero: ikus-entzunezko saria, kanpaina onenarena, irratia, internet eta prentsa saria. Seiga-



2020ko Argia Sarietako familia argazkia. Pandemia baino lehen elkartzeko izan genuen azken aukera.

rren bat ere ematen da tarteka, merezi-menduzkoa. Hau ibilbide luzeko proiektu edo pertsona bati ematen zaio.

Proposamenak egin daitezke sei sari horietarako eta egin daiteke telefonoz 943 371545 telefonora deituta edo emailez, argiasariak@argia.eus helbidera idatzita. Bi kasutan, eskertuko da proposamenaren zergatia azaltzea, saria ematearen motiboa.

Azken edizioa ezin izan da, pandemia dela eta, aurrez aurre egin eta datorrena

nola egingo den oraindik ezin jakin. 33. edizioa erakundeetako, gizarte eragileetako eta Argia Jendearekin Usurbilgo Atxegan ospatzeko moduan izango gara? Formatua zein izango den erabaki gabe badago ere, sariak banatuko dira.

Ez hartu aurre denborari, berak eramango gaitu bere erritmoan. Lehendabizi sarituak aukeratuko ditugu. Garaiurrak non eta nola banatuko diren denborak erakutsiko du. ●



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa 2021

IZABA

Urriak 2, larunbata. 17:30ean, Zinemari
Julen Zelaia Iriarte, Eneko Fernandez Maritxalar,
Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graciarena,
Aitor Irastortza Arrizurieta eta Idoia Granizo Urabarrena
Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

TAFALLA

Urriak 9, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean
Eneko Lazkoz Martinez, Saioa Alkaiza Guallar,
Alazne Untxalo Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi,
Erika Lagoma Pombar eta Urko Gartzia Aleman
Gai-jartzailea: Ander Aranburu Arriola

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai
www.bertsozale.eus

ZANGOZA

Urriak 10, igandea. 17:30ean, Karmengo Auditorioan
Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol,
Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria,
Mikel Lasarte Cia eta Oier Lakuntza Irigoien
Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"

DONEZTEBE

Urriak 16, larunbata. 17:30ean, Zinemari
Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri,
Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ekain Alegre Gil, Egoitz
Gorosterrazu Elizagoien eta Sahats Aleman Sadaba
Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

Antolatzailea



Laguntzailea



Ez gara heroiak.

Askotan, lur jota geratzen gara...



COVID-19 Kanpaina

#GizakiarenOndasunaGizatasuna

ESKERRIK ASKO

ZIMITORIOTIK AMETSETARA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Taliarren esaera da: “Otondo-belarra bezain ezaguna”. Milaka urte da otondo-belarra sendabelar bezala erabiltzen dela, baina oraindik ez gara gai izan zein izen zientifiko eman erabakitzeke *Stachys officinalis* edo *Betonica officinalis*. Biak erabiltzen dira, eta gauza bakarra dugu argi, abizena *officinalis* du. Garai batean *officina* esaten zitzaion batez ere sendabelar bezala erabiliko ziren belarrak eta landareak jasotzen ziren tokiari. Zein generotan kokatu da zalantza: *Stachys* ala *Betonica*. Mundu guztiak sinonimotzat ditu, baina zein da nagusia eta erabili beharrekoa?

Stachys latineko *Stachys* hitzetik dator, zeinak grekoko *στυχίς* baitu jatorri, eta bere esanahia “burua” da; zenbaitentzat, “galburua” eta beste batzuentzat, “artaburua”. Otondo-belarraren lore multzoak, badu bai buru horien antza. *Betonica* latineko *vettonica* hitzaren aldaera da, eta horrek, dirudienez, jatorria galieran du. Pliniok, aldiz, dio Iberiar penintsulako Betoiak zirenengandik datorkiola izena. Egia da bai, geografikoki penintsula horretara oso lotua dago.

Otondo-belarrari buruzko lehen aipamena Antonius Musa mediku erromatarraren lan batean agertzen da; bertan sorginkeriaren aurka eraginkorra zela aldarrikatu zuen. Gerora elizetako zimitorioetan erruz landatua izan zen mamuen jarduna saihesteko. Ingalaterran gaueko ira-



NOVA AGNIESZKA KWIECIE / WIKIMEDIA

txo beldurgarriak eta irudipen eta amesgaiztoak uxatzeko gomendatzen zen. Galesezko xarma batek agintzen du: amets egitea ekiditeko, zintzilikatu otondo-belarraren hostoak lepoan, edo edan bere zukua ohera joaterakoan. Sendagai oso eza-

guna izan zen gaitz ugari tratatzeko: buruko gaitzak, zauriak eta nerbio zartatuak orbaintzeko, suspergarrri gisa digestio-sistema eta gibela bizkortzeko, hilekoaren minak, memoria txarra, tentsio gorabeherak, buruko mina eta garun kongestioak tratatzeko, eta abar. Homeopatian asma eta gehiegizko izerdia tratatzeko erabiltzen da. Gaztelaraz hala diote: “Otondo-belarrak bezainbeste bertute du”.

Geurean ere ez da arrotza. Aspal-ditik izango dugu zimitoriokoa bezala etxekoa; agian teilatu hegalpea zimitorio ere izan izan dugulako? Izen mordo dugu beretzat: otondo-belar, sugeria, betun, ore-ondo belar, sasibelar, otondoko eta ataondo-belar behintzat bai. Betuna behazuna ere bada, eta agian harentzako sendagai ere bada. Otondo, otondoko eta ataondo izen horiek ez ote datoz atariko izatetik? Otearen aldamenekoa izatetik ote datozen ere ikusi izan dut, ez dut gogoan non.

Erleek oso gustuko dute, eta polinizazio beharrean direnen landareen aldamenean jartzen da, baratzeetan, lorategietan, fruta arboladietan... Oraintxe dago loretan, udaberri-uda ia osoan ikusiko duzu. Ekarrri etxera landaretxo bat, mamuak eta amesgaiztoak uxatuko dizkizu; buruko min eta gaitzetarako hor duzu, eta memoria hobetuko dizu. Lastima sorginkeriaren aurka egiten duela... ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Lagun batek orkidea "kume" bat oparitu dit, orain, zuztarra baso bat uretan daukala daukagu, baina zer egin beharko genuke? (Itziar)

Orkidearentzako berezia den nahasketa jarri ontzi garden batean eta bertan sustraiak sartu. Luzeenak kanpoan utzi daitezke, antzera egiten baitute lana kanpotik...

Bidali zure galdera: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

O'LURRA

URKI-SAPAREN ONURAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Zuberoako Basaburuan bizi den Betan D'hulstek duela zazpi bat urte abiatu zuen O'Lurra, urkiaren sapa edo izerdia biltzen eta merkaturatzen dituen proiektua. Ligi herrian (Zuberoa) jasotzen du, Iratiko basotik hurbil. "Zuberoako herri elkargoarentzat egiten nuen lan, oi hanetako egurrarekin zein baliabide lortu ahal ziren aztertzen", azaltzen du. Arbolak batik bat egurrerako eta papererako baliatzen zirela konturatu zen, eta erabilerara gehiagoren bila, lagun teknikari baten bidez jakin zuen urkiaren sapa bildu zitekeela. Aztertzen hasi eta inguruko adineko jendeak jarduera eta urki-saparen onurak ezagutzen zituztela ikusi zuen. Ekoizpena eta salmenta ez zegoen garatua, ordea, eta horri ekitea erabaki zuen.

ZUHAITZETIK POLTSARA, ZUZENEAN

Hilabete eskas irauten du urki-saparen bilketak, otsailetik martxora. "Hostoak egin aitzinean, orduan izaten da sapa gehien arbolean korritzen. Goruntz joaten da sapa, hostoak sortzeko", dio proiektuko kideak. Kanadan baliatzen duten teknika darabilte Zuberoan ere uraren antza duen likidoa jasotzeko: urkiari txerto txiki bat egin, plastikozko hoditxo bat sartu eta grabitateari esker bidoira erortzen da. Bildutako sapa modu desberdinean merkaturatzen dute proiektuko kideak.

Urteotako esperientziaren ondotik, zerbaitetaz ohartu da proiektuaren bultzatzailea: "Klima aldaketaren ondorioz urtero bilketa aurreratzen ari da; hasi nintzenezan martxoan egiten nuen bilketa, baina aurten, adibidez, otsailean hasi naiz", dio. Ligiko

Urteotako esperientziaren ondotik, zerbaitetaz ohartu da proiektuaren bultzatzailea: "Klima aldaketaren ondorioz urtero bilketa aurreratzen ari da".



Kanadan baliatzen duten teknika darabilte Zuberoan ere uraren antza duen likidoa jasotzeko: urkiari txerto txiki bat egin, plastikozko hoditxo bat sartu eta grabitateari esker bidoira erortzen da. Bildutako sapa modu desberdinean merkaturatzen dute proiektuko kideak.

oihan bateko jabeak uzten dio hango urkietan txertoak egin eta sapa ateratzen D'hulsti, eta zuhaitzari ahalik eta kalte txikiena eragiten saiatzen da bera. "Txertoa kentzerakoan, egindako zuloa berriz estaltzen diogu arbolari, eta hostoak hasten direnean bilketa gelditu egiten dugu, denboran asko mugatuz". Zigilu ekologikoa du ekoizpenak, eta urtero hainbat kontrol pasatzen dituzte.

GARBIKETARAKO, PROBIOTIKO BEZALA NAHIZ LARRUKO ARAZOENTZAKO

Bildutako sapa modu desberdinetan merkaturatzen dute proiektuko kideak. Batetik, poltsetan saltzen dute, gorputzeko garbiketarako darabiltenek freskoan kontsumitzeko. "Toxinak kanporatzeko hiru asteko garbiketa tratamendua izaten da; larrrua eta ilea garbitzen ditu, purifikatzailea da eta zirkulaziorako ona", dio ekoizleak. Kontsumitzeko beste modu bat laktofer-



mentazioarena da: sapa bildu eta naturalki laktofermentatzen uzten dute, esnearen itxura hartzen duelarik. "Prozesu horrek probiotikoak sortzen ditu, eta hesteentzat eta defentsa inmunitarioak garatzeko da oso ona". Azkenik, hurbileko laborategi batean usain desberdinetako xaboiak ere egiten hasi dira sapparekin. Larruko arazoak dituztenentzako onuragarriak dira horiek.

Dendarik ez dute O'Lurrako kideak, baina bide hurbilean saltzen dute haien produktua, interneteko o-lurra.fr webgunean, biodendetan eta AMAPen bidez. Hegoaldetik ere geroz eta eskari gehiago jasotzen omen dituzte. ●



Zinemaldiaren ajeak

 PERU IPARRAGIRRE

Larunbat gauean 69. Zinemaldiko sarietan banaketa eta itxiera gala heldu zenerako leher eginda nengoen eta ohean etzanda jarraitu nuen ekitaldia. Duen punpa gutzirako nahiko traketsa iruditu zitzaidan oro har, baina hori beste pelikula bat da. Lehiako hamasei filmak gogoratzen saiatu nintzen. Zeinek irabaz zezakeen zer nire badaezpadako irizpideen arabera? Zaila izaten da epaimahai batek har ditzakeen erabakiak aurretik asmatzea, hainbeste faktorek eragiten dute haietan. Aurten goan, gainera, berrikuntza bat: aktore onenaren sari bakarra, gizonetako aktore onenaren eta emakumezko aktore onenaren sariak beharrean.

Gaizka Izagirre kazetariak sare sozialetan salatu zuen Kurasaalean elkartzen ziren kazetarien (gizonetako) artean behin eta berriz entzuten zuela epaimahaiakideen gehiengo emakumeak zirenez emakumeak izango zirela saritutako zinemagileak, esanez halako iruzkinekin zinemagile horien lana gutxiesten zuela. Emaitza horixe izan arren arrazoia merke ematea litzateke kexu

tranpatiok ontzat jotzea, baita sari-banaketa ostean ere.

Crai nou errumaniarrak jaso du Urrezko Maskorra, askoren begietara saileko filmik kaskarrenetakoa. Niri ere, eta hala utzi nuen idatzita, ordura arte ikusitako artean proposamenik "ahulena" iruditu zitzaidan, esploratzen zituen gaiak daukaten sakontasunarekin eta eman dezaketeko jozarekin ere ez ninduen konbentzitu filmak. Agian, ziur aski, ez nuen ulertu zer zen Alina Grigore zuzendariak esan nahi zuena, ez eta nola nahi zuen helarazi ere.

Beste sarietan sorpresa gutxiago egon zen. Terence Daviesek *Benediction* filmarentzat ondutako gidoiak eta Tea Lindeburgek, esaterako, saria merezi zutela zalantza gutxi izan nuen haien izenak Kurasaaleko ikusle illustreen aurrean irakurri zituztenean. Bestalde, zalantza gutxi zegoen euskarazko filmeren batek saririk jasoko ote zuen, Sail Ofizialean bat bera ere ez baita lehiatu aurten. Iciar Bollainen *Maixabel*-en euskara entzuten da, baina anekdotikoa da kasurik onenenean, eta gehitxo esatea litzateke euskarazko filma

dela esatea. Euskal zinemaren Irizar saria eskuratu du, halere.

Batek baino gehiagok eman zituen eskerak Sail Ofizialeko sari-banaketa hitzartzeetan "tramarik gabeko" film bat saritzearen, Lindeburgek, tartean. Nahiz eta *Du som er i himlen* filmak kontatzen duen istorioa ipuin baten modukoa iruditu zitzaidan, gertakari gutxi kontatu arren kontatzeko moduak zentzua ematen baitio.

Zinemaldiak irudi bat erakusten du kanporantz, zaindua. Amaitu berritan, sariketa-aren harira, batez ere, inoizko zinemaldirik "feministena" izan dela ere irakur daiteke. Horren aurrean daude engarrenez, baina aitzakia desberdin baten harira, palmarezaz kexu direnak. Marion Cotillard eta Johnny Deppen hitzak parez pare jarrita Zinemaldiaren itxura progresistaz zalantzak pitz daitezke, baina are gehiago greban 252 egun daramatzaten Gipuzkoako zahar-etxeetako langileak korrika alfonbra gorrira heldu nahian ari direla atzera nola botatzen dituzten ikustean. Gauza bat baita itxura eta kultur munduko giro politikoa, eta bestea izaera eta funtzio orokorra. ●

69. ZINEMALDIKO PALMARESA

Urrezko Maskorra: *Crai nou* (Alina Grigore)

Epaimahaiaren sari berezia: *Earwig* (Lucile Hadzihalilovic)

Zuzendari onena: Tea Lindeburg (*Du som er i himlen*)

Aktore nagusi onena (ex aequo): Flora Ofelia Hofmann Lindahl (*Du som er i himlen*) eta Jessica Chastain (*The Eyes of Tammy Faye*)

Taldeko aktore onena: *Quién lo impide* filmeko antzezle taldea

Gidoi onena: Terence Davies (*Benediction*)

Argazki onena: Claire Mathon (*Enquête sur un scandale d'état*)



ERIK WITSOE

Irudika ditzagun istorio sinesgaitzak

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Zinemaldiaren *glamourak* atzean zer uzten zuen ez pentsatzen ahalegindu ginen. Irailaren 17tik 26ra bitarte, Donostiako erdiguneak eta Alde Zaharrak Zurriolako hondartzarekin egiten duen triangeluak ez du Zinemaldia ez zen besterik izan hizpide. Eta behin garbitzaileen kamioiak azkenengo sarrerak eraman dituztenean... gertatutakoaren inguruan hausnartzea gelditzen zaigu soilik.

Filmen kritikak egiteko modu asko egon daitezke. Niretzako, ez da erraza gertatzen iruzkinaren atalak egitea, txikitan erakusten ziguten modura: sarrera, argudioak, mamia, ondorioa... Edo ondorioek jaten naute hasierako sarreran, edo argudioak etorri ahala ihes egiten dit, edo mamirik gabe gelditzen naiz bukaerarako. Ez da modurik ordenatuena, baina forma eta edukia bereiztea bezain zentzugabea egiten zait pentsatzea etika eta estetika banaturik egon litezkeela. Egia da Zinemaldiaren programazioaren inguruan iruzkin bat egiteko film guztiak ikusi behar izango nituzkeela, edo estatistikoki zilegitasunaren ehuneko atera eta bete; ez da nire kasua. Halere, nago, ikusitakotik abiatuta, ohikoak ez diren istorioak faltan bota izana azaldu dezakedala,

eta horretaz gain, gidoi posibleetarako apunteak idatzi, inork egingo ez dituen filmak irudikatze aldera.

Jolasean diru guztia xahutu duen emakumea irudikatzen dut. Ile zuria, adineko andre baten itxura, janzkera diskretua. Bortzirietako bizilaguna litzateke, eta Lesakako kasinoan zorpetu berria. Herrian, noski, inork ezin lezake ezer jakin. Are gutxiago haren herentziarekin amesten duten seme-alaba eta bilobek; batez ere haiek, ezingo lukete ezer jakin. Ez da ezinezko istorioa, ez da gauza berria; ezagunak dira norberaren familian musean jokatzen galdutako baserriak. Baina ez dira ageriko kontuak, era berean. Emakumeen joko zaletasunak, dirua oinordekoei eman ordez bizi diren bitartean gozatu nahi dutenak, ez-kristauak. Halakoa izan liteke *Casino* filma.

Bigarren gidoi batera pasa gintezke orain. Irudikatuko nuke haur bat, lehengusinarekin, isilpean, sexualitatearen ertzak topatzen ari dena. Biluztasunaren jolasa, jakituria den inozentzia, gurasoengandik urruntzeko lehen pausoak. Egiten ari direna zer den jakin ez arren, kasualitatez, sekretuan mantentzen dutena. Atzemanak diren arte... eta

bere azalean bizitakoak onartu ezin izan dituen aitak, amorru bizian, dena suntsituko duen arte. Edo bere esperientzia propioetan hausnartzera eramango duen arte, zorte pixka bat izanez gero.

Eta bestea, fantasiari dagokiona, edo dokumentalari: gauza bera finean. Gizon homosexuala irudikatu nezake, sendabelarren aditu dena, sorgin bat. Gizonak, nagusia pozoitzeari egingo dio, pixkanaka, hainbat belarren nahasketa bazkariarekin batera emanaz, Sara Montielen zianuroen inspirazioz. Ez litzateke, inola ere, kontu berria: isilpean daude gordeak hainbat emakumek, gizonak jipoitu ostean, hartutako *vendettaren* lekukotzak. Oraindik aipatu gabeak, ordea.

Denak ala denak dira erreal eta irreal. Ez dira sinesgaitzak gertagaitz direlako edo haiekin konektatu ezin dugulako. Narraziorako modu ez-ohikoak direlako baizik. Ez dira existitzen aipatzen ez direlako, sekretuak direlako; baina existitzen dira gure pentsamenduetan. Misio bat jarri nahiko nioke eraikitzen den film bakoitzari: ezinezkoa izan dadila, sinesgaitza. Atera gaitzala ohiko zonaldeetatik, eta jar dezala ale bat bestelako munduen eraldaketarako aukeran. ●



Zinemaldiaren osteko bestondoa

 MIKEL ANTZA

Aurten ez naiz Zarautzera joan Literaturariara. Nekatuegi nengoen. Neure buruari ezarritako zine maratoniaren amaieran ondo zetozkidakeen begiei zabalik eusteko *Laranja mekanikoa* filmeko Alexi ipini zizkioten gailuak.

Victoria Eugenia antzokian nengoela gogoratu nuen bertan ikusi nuela Werner Herzogen *Fitzcarraldo*. Eta haserre atera nintzela amaitu aurretik, irakurria bainuen filmean erabilitako ontzia mendiz garraiatzen agertzen diren Amazonasko biztanleetako batzuk hil egin zirela.

Antzoki Zaharrera hurbiltzean gogoratu nuen orain Casino Gran Kursaal bihurtu duten lehengo Petit Casino aretora eraman gintuztela ikastolatik Jose Mari Zabalen *Axut* film apurtzailea ikustera.

Ez dut Urrezko maskorra irabazi duen *Crainou* ikusi, sinopsia irakurri, eta azken unean aspergarria izango zela irudituztela. Nire gogo eta irizpideen arabera hautatu ditut ikusi nahi nituen filmak. Ez naiz filmei buruzko nire iritzia emateko hurbildu. Zinemaz gozatu nahi izan dut, egoistaki, besaulkian eseri eta irudien bidez iristen zitzaizkidan istorio eta kontakizunekin plazer hartu.

Ezinezkoa egin zait asmoa erabat betetzea. Zinemaldiak zinema kutsatzen

du. Osasun kontuen aitzakian hartutako neurriek bezainbeste. Zinemaldian, filmaren inguruan antolatzen den erritualak formateatzen du filma, eta ikuslea ere.

Akreditazioa poltsan ezkutatuta, Zinemaldiak Donostiari ekartzen dionari kasu egin gabe ibiltzen saiatu naiz. Ez dut lortu. Zinemaldiaren eragina sentitu dut, zinemarena baino gehiago. Neure burua behartu nahi izan dut hainbat konturi ezikusia egitera. Ez dut lortu.

Tasting tour-era eta *tasting film*-era etorritako turista zinemazaleek bete dituzte Donostiako Alde Zaharreko kaleak eta tabernak. Bertakook arrotz sentiarazteraino.

Poliziak ikusi ditut Maria Cristina inguruan, beren armak prest. "Johnny Deep babesteko ote?". Segurtasuna omen den horretaz arduratzen direnek izango zuten motiborik kerik gabeko garaiotan horrelako indar erakustaldiak egiteko.

Proiektatu diren filmeetan euskarak izan duen presentzia neurtu dute. Batzuei uste baino gehiago irudituko zaie; beste batzuk kezu izango dira, gehiago nahiko luketelako; beste batzuei gehiegizkoa eta soberazkoa irudituko zaie.

Gaztelaniaren presentziaren neurketa egin beharrik ez dago. Badakigu ehuneko ehunekoa dela.

Hogeita hamazazpi urte igaroak ziren oraindik "Auzoak eta herriak" saila zeukan Zinemaldira joateko aukera izan nuen azken aldi hartatik. Eta bai, noski, euskararen *kutsadura* nabarmen hedatu da arlo guztietan. Baina Zinemaldian ere, antolaketaren aldetik egindako ahaleginak ahalegin, euskara hizkuntza subalternoa da. Gaztelaniaren eta ingelesaren azpian, euskaradun borondatetsu eta kextatiei erabiltzeko eskaintzen zaien makulu ezdeusa.

Muturra okertu zidan adiskide batek Zinemaldian parte hartzeko nire asmoaren berri jakitean. Eta beste batek, esan nionean Literaturariara ez agertzeko arrazoia Zinemaldiaren ondorengo nekea zela, honela erantzun zidan: "A, ni ere nekatuta nagok Espainiako zinemaldi horrekin, euskarazko kulturgintzaren hedapena paralizatzen duen Movistar eta RTVEren *San Sebastianeko Zinemaldiaz*".


Zinemaldiaren bestondoa pasatzen zaidanean, ingurukentzako ikusitakoan artean gustatu zaizkidan zerrenda egin, eta areto erdi hutsean zinemaz gozatzearen plazera berreskuratutako nahi dut. Bai, hori ere plazera baita. ●

Benahoaretik La Palmara

Gomera (Kanariar uharteak), 1433. Guillen Peraza Sevillan jaiotako konkistatzaile gaztelarra, hiru ontzi eta 500 gizonekin, La Palmara abiatu zen, uhartea konkistatzeko asmoz. Gaztelarazko toponimoa mende bat lehenago azaldu zen lehengo idatzita, 1341eko Niccoloso da Reccoren espedizioari buruzko testu batean. Izenaren jatorria ez dago garbi. Batzuek diote uharteko kanariar palmondoengatik jarri ziotela. Baina landare espezie hori ez zen bereziki ugaria uhartean. Horregatik, beste batzuek uste dute nabigatzaile mallorcarrek jarri ziotela izena, Palma hiriaren omenez, eta “La” artikulua erantsi ziotela nahasmenduak saihesteko –eta, itxuraz, ez zen nahikoa izan, azken egunotan nabarmendu baita askok oraindik arazoak dituztela, La Palma uhartea, Las Palmas probintzia eta Palma Mallorcakea nahiz Las Palmas Kanaria Handikoa hiriak bereizteko–.

Baina artxipelagoaren mendebaldeko uharteak bazeukan lehenago beste izen bat, guantxerazkoa, awara aborigenek erabiltzen zutena: Benahoare, “nire lurra” edo “arbasoen tokia” modura itzuli izan dena. Eta beste hamarkada batzuetan izen hura erabiltzen jarraituko zuten, Perazaren saiakerak porrot egin baitzuen. 4.000 awara inguru bizi ziren orduan irlan, eta soilik oinarrizko armak –egurrezko lantzak eta harriak– bazituzten ere, gaztelarrek egoztean lortu zuten. Peraza bera harri horietako batek buruan jota hil omen zen.

1492ko irailean, Alonso Fernandez de Lugo buru zuen espedizioaren aha-lerinak helburua lortu zuen. Benahoare mendean hartu zuten, hitzarmenak –12 kantoietatik 9 horrela eskuratu zituen–, armak –Timibucarreko guduan beste bi kantoietatik ziren– eta amarruak erabiliz. Aceró zen eusten zion azken kantoia, eta Fernandez de Lugo bakea negoziatzeko eskaintza



KANARIA UHARTEETAKO 1811KO MAPA. ORDURAKO GUANTXERA IA DESAGERTUTA ZEGOEN ETA LA PALMA UHARTEAK ERE (EZKERREAN) GALDUA ZUEN BERE JATORRIZKO IZENA: BENAHOARE.

egin zion Tanausú buruzagiari, horrela bere herriaren sufrimendua saihestuko zuela argudiatuz. Tanausú hitzarmena sinatzeko prest zegoen, eta tranpan erori zen. Gaztelarrek atxilotu eta ontzi batean sartu zuten Iberiar penintsulara bidean. Itsasontzian hil omen zen, jateari eta edateri muzin egin eta “vacaguaré” (hil nahi dut) hitza eten-gabe errepikatu ondoren.

Awarak edo guantxeak –Kanarietako lehen biztanle guztiei hala esaten zaie, guantxeak berez Tenerifeko aborigenak izan arren– ez ziren desagertu. Nagusiki Gaztelatik eta Portugaldik iritsitako kolonoekin nahastuz joan ziren. Duela urte batzuk Tenerifeko La Laguna unibertsitateko ikerlan batek ondorioztatu zuen Kanarietako egungo populazioaren erdiak baino gehiagok gene guantxeak dituela. Francisco García-Talavera paleontologoaren ustez, “hori garrantzitsua da, guantxeak ez zirelako desagertu. Alderantziz, konkistaren ondoren gehiengoaz izaten jarraitu zuten”.

Baina genetikoki gailendu arren, La Palmako aborigenek beste guztia galdu zuten: instituzioak, sinesmenak, ohiturak... eta askatasuna. Kolonoen jarduera berriek eskulana behar zuten eta, García-Talaverak dioenez, “guan-

txeak esklabotzat hartu zituzten eta, gero, esklabo afrikarregatik ordezkatzu joan ziren”. Hizkuntza ere galdu zuten. XVIII. mendean desagertu ziren guantxeraren dialektoak, XIX. mendean komunitate itxi batzuek eutsi zieten arren. Egun, soilik Kanarietako gaztelaniaren mailegu batzuetan eta zenbait toponimotan geratu da guantxera.

Gaur egun, La Palmako 340 toponimo nagusietatik 46k (%12) jatorri guantxea dute. Eta egunotan, sumendia esnatzearekin bat, guantxerazko hitz solte horietako batzuk berpiztu eta guztien ahotan dabilta. Esaterako, La Palmako aurreko erupzioa, 1971koa, Teneguía sumendian izan zen; izenak “tiniguiga” hitzean du jatorria, eta esanahiak ur-lurrunarekin edo kearekin du zerikusia. Laba, bere bidean, besteak beste, Todoque auzora iritsi da; toponimoak “tedote” hitzean du jatorria eta sasitzak estalitako mendiak izendatzeko erabiltzen zuten awarek. Todoque Los Llanos de Aridane udalerriko auzune bat da. Hiriburua ez den arren, uharteko hiririk populatuena da, eta izen elebidun eta errepikakorra dauka; gaztelarazko “llanos” eta guantxerazko “aridane” hitzek “ordokiak” esan nahi baitute. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA



LIBURUA

Begi-bistakoa ikusi ez



DANI BLANCO

BASOAN BARNA AINARA AZPIAZU ADURIZ, AXPI

ELKAR, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Neskatila bat dugu liburu honetako narratzailea. Aitona ehiztaria zela dio hasieran (*Ehiztaria zengure aitona gaztetan*) eta, ondoren, *Orain, berriz, argazkilaria da*. Axpik (Ainara Azpiazu Adurizek) esaldi horien esanahi osoa adierazten digu irudien bidez. Lehenengoan animalien buruak ageri dira aitonaaren etxeko hormetan, bigarrenean, aldiz, aitona animaliekin argazkietan. Hiltzetik maitatzera pasa den seinale.


Narratzaileak aitonaarekin joan nahi du basora animaliak ikustera: "Argazkiak ikusita, basoko animaliak ezagutzeko irrika sartu zait, eta aitona eskatu diot berarekin eramateko. Oreinak, orkatzak, basurdeak, azkonarrak (...) Den-denak ikusi nahi ditut!". Eta aitonaarekin

basoan eginiko ibilalditxoa da album honetan kontatzen zaiguna. Nola doazen, eta nola neskatxoak begi-bistan izanik ere, ez duen animaliarik ikusten; eta bitartean, aitona nola ateratzen dizkien argazkiak basoko animaliei eta ilobari. Azeriak, katagorriak, erbiak, txantxan-gorriak... basoko animaliak ikus ditzakegu kolore bizi eta trazu markatuez eginitako ilustrazio ederretan. Protagonistak, aldiz, ez du batere ikusiko basoa kaleko begiradaz begitatzegatik.

Umorea du kontakizunak, naturaren eta gure ingurumenaren defentsa puntua ere bai. Baina, batez ere, iloba eta aitonaaren arteko jolasaren eta basoko animalien erakuslehoaren adibidea dugu liburua; gure basoan dauden animaliak ezagutzeko eta maitatzeko obra.

Axpik ederki lortzen du testuaren eta ilustrazioaren arteko konbinaketa; ikusleak primeran jasotzen ditu egilearen asmoak, protagonisten sentimenduak, errealitatearen isla. Irakurleak istorioa jarraitzen du arazorik gabe eta protagonisten nondik norakoekin jolasteko aukera paregabea eskaintzen dio irakurleari edo liburuaren irakurketa konpartitzen duenari. Liburua, batik bat, jolasa delako; eta jolas horren unerik gorena amaieran ikus dezakegu, aitona ibilaldiaren hurrengo goizean iloba esnatzen denerako prestatu dion opariarekin.

Liburu goxo eta aberatsa; irakurketa asko eskaintzen dituena txiki-txiki-kientzat baina, baita ere, helduagoentzat ere. ●



MUSIKA

Eman aukera su hari



IBON GOIKOETXEA

XALBA RAMIREZ

Jakin behar da trantsizioak ondo egiten eta bukatzen. Bideak hasi eta erdibidean geratzeko arriskua izaten du erabakiak eztabaidatzen katramilatzen denak. Komunistek dioten taktika eta estrategiaren arteko eztabaida, badakizue. Madeleine taldeak *Su Hura* (2018) lanean hasitako bidea burutu eta bere estiloa ondo finkatu duela esango nuke *Ezin Dena* (2021) diskoan.


Konfinamenduan konposatu dute euren etxeetan, eta lokalean partekatu ostean Eñaut Gaztañagarekin grabatu dute, aurretik bilatutako soinuari jarraipena emanez. Delay eta reverb gitarrak, baxu lodiak, bateria prozesatuak eta autotune pixkatxo batekin, beraien “poz-rock” soinua lortu dute.

Itzal Urangak eta Gartxot Unsainek egin dituzte kantuen letrak, eta bakoitzak be-

reak kantatzen ditu, intimitatea eta sinesgarritasuna irabaziz. Unsainek galdetzen du “ohiko bizi bat zer den”, 30 urterekin gaztetasuna aldarrikatzen urrun, nork bere bidea egitearen garrantziaz.

Tame Impala usaina eman diote “abiadura handiko herrena” dioen kantuari, “erraien bailaran sumendiak zulatzen” dabilen AHTren eta garaiko barne abiaduren inguruko abestiari. *Ikusten nauzuenean* kantuari ukitu indie festibaleroagoa eman diote amaierako baxu funky eta guzti.

Diskoaren klimaxa *Bestalde eza* kantuan topatu dut. Nostalgia ariketarik gabe, *Mugarri* diskoan (2013) kaleratutako *Berlin* eta *Tartalo* kantuen errepiken estiloan, etxean, kotxean eta kontzertuan eztarria urratuz abestekoa. Behin eta berriz oiuhatzeko gogo, barruan mugitzen dizulako



MADELEINE
EZIN DENA
AUTOEKOIZPENA

mugitzeko dagoena: “Barne uda negu tankerako udaberri / udazkenaren zai nago / ustez oinak lurrean zituen hosto hori / (orain) hankapunttetan al dago?”.

Gatza Factoryk egindako azal ederra aipatu gabe ezin utzi. Udaberriaren koadro bat dirudi, udazken paletaz margotuta.

Aitortuko dut, lehen entzunaldian ez nauela harrapatu. Entzunaldiak zuen errua, akaso aldaketa handiagoa espero nuelako. Arreta eskaini ostean, ñabardurek eman didate *Ezin Dena*-ren ideia zintzoagoa. Hasierako ideiera noa berriro, bere bidea asmatzen ari den proiektua delako lan hau. Madeleine ez delako besterik, lagun talde bat, euren –eta beraz gure– biziari buruz abesten. “Izuak hartu eta eseri / Ta eman aukera su hari / Gure etxean / Hire etxean / Atea zabalik da”. ●



Bertan goxo

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE MAIDER ALDASORO DIAZ

Zoriontasuna utopia bihurtu da garaiotan. Etengabeko bonbardaketaren bidez sinestarazi digute zoriontasun osoa posiblea ez ezik, derrigorrezkoa dela. Zoriontasuna lortu beharreko egoera bilakatu da, arkadia bat, zoriontsua ez izatea zama, sufrimendu iturri bilakatu den bezala. Zoriontasuna kapitalismo berantiarrek saldu digun promesa da, garapenean fedea izanez gero, bere bidea jarraituz gero lortuko duguna. Maider Aldasoro Diazen *Aurrean Goxo* erakusketa fede eta promesa faltsuen ukapena da, gauza txikien zoriontasuna eta hedonismoa aldarrikatzearekin bat, desiren alde ilunaz ohartarazi nahi gaituena.

2018tik sortu dituen piezak bildu ditu artista donostiarrak erakusketa horretan. Askotariko momentu eta motibazioak eragindako obrak diren arren, bada guztiak lotzen dituen hari bat. Izenburua Kalabaza Tripontziaren ipuin batetik hartuta dago, zeinetan ardi goseti

batzuek aurrerago dagoen belarra goxoagoa izango denaren promesak gidatuta, parean dutena jan ordez etengabe aurrera egiten duten.

Ongi etorria ematen duen pieza zoruan proiektatutako bideo bat da, zeinetan Maider Aldasoro Diaz agertzen den lantegi abandonatu batean berak eraikitako kulunka erraldoian saltoka. Pieza horrek ondo baino hobeto deskribatzen du artistaren asmoa, abandonatutako lantegi zahar batean, errepide bazterrean, bere funtzioa bete eta gero gizarteak ahaztutako leku horretan gozamen eta bizi-pozerako lekua aurkitu baitu. Produktibitatearen jainkoa gurtzeko eraikia izan zen tenplua jolas-leku bilakatu da. Salto artean, artistak nor izan nahi duen hausnartu du. Bere hurrengo asmoa hegan egitea dela erabaki eta helburu horrekin fabrikatu ditu erakusketako bi pieza nagusiak: hego beltz erraldoiak.

Hegoen kolorearen aukeraketa ez da hutsala, desioak bere alde iluna ere

'AURREAN GOXO' ERAKUSKETA

NOIZ: irailak 16 / urriak 10

NON: Bilboko Azkuna zentroa

baitu. Horri buruz ohartarazi nahi gaitu artistak bere gainerako piezekin: maitasun erromantikoaren gezurrei eta adiskideen arteko harreman eta dinamika toxikoei buruz. Desira ere kartzela izan daiteke, gezur bati lotzen gaituen katea. Horrela, musu eternalak antsietaterekin lotu ditu; maitasun erromantikoa bizkarean daramagun zama bezala irudikatu du; eta lagunen arteko jolasak lehiaketa jasangaitzean bukatu daitezkeela erakutsi digu. Sentimendu horiek guztiak ondo baino hobeto transmititzen ditu sortu dituen artefaktu eta jantziakin, joko eta fantasia kondena bilakatu daitezkeela argi utziz.

Promesez aspertuta, goseak hiltzear daudela, ipuineko ardiek parean duten belarra jaten amaitzen da Kalabaza Tripontziaren istorioa. Parean dutena, unean unekoa, izango baita belarrik goxoena. Beraien desioei baietz esateko gai izan direnean, promesa hutsak baztertu dituztenean, asetu dute haien gosea. ●

Leire Pinedo

PSIKOLOGOA



ONDOEZA AZALERATUZ

“Psikologian graduatu ondoren psikologia klinikoan espezializatu nintzen administrazio publikoan lan egin ahal izateko. Osasungintza publikoan psikologo gehiago eskatzen ditugu arreta egokia bermatzeko, pertsona guztiek ezin baitute profesional pribatuengana jo. Buruko gaitzen gaineko aurreiritziekin hausteko ordua da, emozioak ezagutzen eta onartzen ikasi behar dugu. Ondo dago gaizki sentitzea gauza ezatseginak gertatzen zaizkigunean, denbora hartu behar dugu oreka berreskuratzeko”.

“Zaila egiten zaigu laguntza eskatzea, estigma handia dago osasun mentalari lotuta”

Emozioak detektatzen eta onartzen ikasteko bidean, sare sozialetan gogoeta eta aholku formako pilulak plazaratzen ditu Leire Pinedok (Bilbo, 1990); horien bidez, gizartean errotuta dauden tabuekin apurtu nahi du. Horixe baitu bokazio: buruko gaitzak prebenitzea dibulgazioa ardatz hartuta. Osakidetzan dihardu barne psikologo egoiliar gisa; esparru publikoko arreta zerbitzua hobetzearen defendatzaile sutua da. Ikuspuntu kritikotik jorratzen du osasun mentalaren gai konplexua, aferen muinari erreparatuta.

 **LEIRE REGADAS**  **HODEI TORRES**

Osasun mentala tokia hartzen ari da sare sozialetan, lagunarteko hizketaldietan eta baita komunikabideetan ere. Gauzak aldatzen ari dira?

Badirudi osasun mentalari buruzko interesa handitzen ari dela pixkanaka. Ezbeharrei aurre egiteko ditugun baliabideak kolokan jarri ditu pandemiak, erronka izan da. Azkenaldian hainbat pertsona famatuk euren esperientziak ezagutzera eman dituzte eta hori ere lagungarria da gaiaz hitz egiten hasteko orduan.

Gizarte osoak bizi izan du momentu “traumatiko” bat; izurritea, itxialdia eta ekarri dituen ondorio guztiak. Osasun mentala zaintzeko premia azaleratu da...

Pandemiak eragin emozional handia izan du, baina erreazio normala da bizi dugun ezohiko egoera baten aurrean. Erronka epe laburrean oreka aurkitzea da, emozio desatseginak izatea normala dela onartuz. Pertsona gehienak aurrera egiteko gai izango dira, baina talde batzuek

arriku handiagoa dute eta laguntza gehiago beharko dute.

Adibidez?

Nerabeen kasua kezagarria da. Pandemiaren osasun mentaleko arazoak ugaritu egin dira haien artean, eta baita horiei lotutako ospitaleratzeak ere. Batez ere, anorexia, joera suizidak eta antsietatea. Isolamenduak eragin berezia izan du, aurrez aurreko harremanak funtsezko oinarria baitira nerabeen ongizatean eta garapenean.

Emakumeen eta gizonen artean alderik dago gaitz mentalen diagnostikoan?

Alde batetik, zailtasunei aurre egiteko modua desberdina da, kulturalki, generoen artean, eta emakumeek gizonetako baino laguntza gehiago eskatzen dutenez, diagnostiko gehiago jasotzen dute; depresioa eta antsietatea, esaterako. Gainera, emakume izateak beste arrisku-faktore batzuekin lotura zuzena du: pobreziarekin, prekaritatearekin, zaintza-karga handiagorekin...



"Osasun mentala zaintzeko bizi baldintza duinak bermatu behar dira".

Buruko osasunak egoera ekonomikoarekin izan dezakeen lotura aipatu duzu.

Argi dago pobrezia, prekaritateak eta premia oinarrikoenak ezin asetzeak eragiten duen segurtasun ezak buruko arazoak garatzeko aukerak handitzen dituela. Osasun mentala zaintzeko bizi baldintza duinak bermatu behar dira, babes sozialeko neurriekin.

Erroan dagoen arazoa kolektiboa izan daitekeen arren, isilean, ezkutuan eta bakarka bizi da gaitza sarritan.

Hainbatek sentitzen du ezin dituela bere arazoak ingurukoekin partekatu, gaitzespenaren beldur delako edo ulertua ez izatearen beldur delako. Baina gizarte babes eta laguntza sareak ezinbestekoak dira gure ongizaterako. Tabuak hausten hasi behar gara.

Ez bagara kapazak gertatzen zaiguna konfiantzazko pertsonekin konpartitzeko, nola eskatuko dugu laguntza profesionala?

Oraindik zaila egiten zaigu laguntza eskatzea, estigma handia dago osasun mentalari lotuta. Psikologoarengana joatea ez dago medikuarengana joatea bezain onartuta oraindik, eta askotan arazoa konplexuago bihurtu arte atzeratzen da laguntza eskatzea. Hala ere, esan

behar da egoera pixkanaka aldatzen ari dela. Gazteei gutxiago kostatzen zaie psikologora joatea, normaltasun handiagoz hitz egiten dute honi buruz eta elkarri babesa ematen diote.

Osasungintza publikoa prestatuta dago behar besteko laguntza emateko?

Psikologoaren eta psikiatren kopurua Europako batez bestekoa baino txikiagoa da. Profesionalak gainezka daude, itxaron-zerrendak luzeak dira eta saioren arteko maiztasuna ere ez da egokiena. Horren ondorioa da gehiegi medikalizatzen dela ondoeza arintzeko, eta askotan horrela ez da arazoa konpontzen. Osasungintza publikoan psikologo gehiago behar dira.

Mezu jakin batzuk behin eta berriro errepikatzen dira: era positiboan pentsatuz gero nahi dugun guztia lortzeko gai izango garela, esaterako.

Egia da egoera desberdinen alderdi positiboari erreparatzea eraikitzailea izan daitekeela une zailei aurre egiterako orduan. Baina mezu hori puztu eta desitxuratu egin da. Ezin dugu nahi dugun guztia lortu soilik jarrera positiboa izanik, dena ez dagoelako gure esku. Mezu horrek arazoa indibidualizatu egiten du. Ez hori bakarrik, gertatzen zaigunaren

erantzule egiten gaitu, errudun sentiarazten gaitu.

Muturreko positibotasun hori emozioak ezkutatzeko moztorra izan daiteke?


Zentzu horretan hezkuntza falta zaigu. Emozio guztiak normalak eta moldakorrak dira, informazioa ematen digute eta erabakiak hartzen laguntzen digute. Horietako bakoitza identifikatu, ezagutu eta onartu behar dugu, beren funtzioa bete dezaten. Ondo dago gaizki egotea gauza ezatseginak gertatzen zaizkigunean, denbora behar da oreka berreskuratzen. Beti ezin gara ongi egon.

Gizartean errotuta dauden zein jarrera eta ikuspegi aldatzea ikusten duzu beharrezko?

Batzuetan depresioa, antsietatea edo TOC (nahasmendu obsesibo-kompulsiboa) dugula adierazten dugu triste edo urduri gaudela edota maniak ditugula azaltzeko. Espresio horiek erabilia buru-nahasmenduekin lotutako estigmak eta aurreiritziak elikatzen dira, eta empatiatik urruntzen gaituzte. Badago beste kontu bat; telesailetan, filmetan eta interneten transmititzen den erromantizazioa edo idealizazioa nahasmendu mentalekiko. Horretaz ez gara hain kontziente. ●



Guardia zibil batek Mozal Legea ezarri dio bere buruari, Instagramera igotako selfie batengatik



“Hemen sufritzen”, zioen Instagramera igotako beste argazki honetan Pichuk.

“Pitxu Mina guardia zibila Meridako estupefazianteen unitateko kamaradekin ageri da Instagramera igotako argazkian, errepide-kontrol batean atzemandako materiale guztia kalitate onekoa dela egiaztatzen, aurpegia eta sudurra estali gabe. “Argazkia zabaldu eta denbora gutxira jabetu nintzen Herritarren Segurta-sunerako Legea urratzen ari nintzela, eta horregatik erabaki dut nire buruari 600 euroko isuna jartzea”, azaldu digu. “Isuna ordea ez dut nik ordainduko”, jarraitu du.


“Duela bi egun crowdfunding kanpaina jarri nuen martxan, eta pare bat lagunek egindako ekarpenari esker, euro bakarra ere ez dut ordainduko. Ezagutuko dituzue ziurrenik, Ekinklik eta Ahotsako bi argazkilari zorritsu dira. Kariño guztia-ekin diot e. Pertsona oso jatorrak dira, etxerako modukoak. Pozgarria da inguruan horrelako jendea izatea, guk egiten ditugun hankasartze txiki horiengatik ordaintzeko prest daudenak, Espainiaren izen onagatik”.

Biribilgune feminista




SAREAN ARRANTZATUA

Spiderman Loiolako herri harresian zauritu zutenekoa



Iberdrola kilowatioaren prezioa kalkulatzan



Legearen hutsunea



Josu Armando | Facebook



“Bo...

kakingarria!”

**Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.**

berria

zuk badakizulako

ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Buruja be garez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45